



GURU
TZEG
RAMA

Udaberriko sportak



"Inoiz ez da ikusi halakorik; birusak mundu osoa geldiarazi du"

MIKEL REPARAZ EXTRAMIANA ETBKO NAZIOARTEKO ARDURADUNA

Globalizazioak koronabirusaren fenomenoa nola hedatu duen aztertu dugu nazioarteko aditu arbizuarrarekin. Munduko hegemoniaren borroka, datorren krisia...

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Gurean nazioarteko informazioan aditu bat badago, Mikel Reparaz Extramiana kazetari arbizuarra da. Sarritan ikusi eta entzun dugu munduko txoko ezberdinetatik bertan gertatzen denaren berri ematen. Gaietik begiratu eginez, Eusko Legebiltzarreko korrespontsala izan zen; 2001 eta 2004 artean EITBko Europar Batasuneko korrespontsala izan zen, eta Ekialde Hurbileko eta Pakistango berri ere eman zuen tarte batean, eta Balkanetako gerrako kontuak zabaldu zituen. Radio Euskadi albistegietako zuzendari lanetan ere aritu zen, eta 2013tik 2018ra EITBko AEBetako korrespontsala izan zen New Yorken. Egun, Euskal Herrira itzuli eta Algortan bizi da, eta ETBko nazioarteko arduraduna da. Nor bera baino hobe fenomeno globala bilakatu den koronabirusaz aritzeko?

Nazioarteko zure esperientzia zabal horren begietatik, nola ikusten duzu COVID-19 birusaren fenomeno global hau?

Horrelako pandemiak historian gertatu dira. Egon zen gripe espainiarra, beste batzuk, IHESA ere, esaterako, baina inoiz ez da halakorik ikusi, birus batek mundu osoa geldiarazi duela, hemen, Zelanda Berrian eta Afrikan. Nik esanen nuke egun mundua nola dagoen antolatuta, horren neurriko gaitz bat dela COVID-19; alegia, globalizazioaren ondorio

ilunenetako bat. Azkenean gaitz hau badirudi Txinan hasi zela eta oso-oso denbora gutxian ikaragarria izan da nola zabaldu den. Oraintxe bertan gaitz hori munduko bazter guztietan dago eta mundua geldiarazi egin du. Askotan esaten da globalizazioak komunikazioa ahalbideratzen duela, teknologia horiek ahalbideratzen dutela lehen mirari bat zirudiena, jendea nola dagoen elkarrekin harremanetan, ekonomia nola zabaltzen den, komertzioa mundu osora nola ahalbideratzen duen... baina hau beste aldea da, globalizazioaren alde iluna; globalizazioak birusaren fenomenoaren erabat anplifikatu du. Eta horrek zer pentsa ematen du, norantz goazen eta mundua zein puntutaraino dagoen interkomunikatuta zentzu guztietan, onerako eta txarrerako. **Fenomeno globala da, baina herrialdeek birusari nola aurre egin modu ezberdinetan erabakitzen ari dira. Txinan erabateko konfinamendua egin zuten, Italian eta Espainiar estatuan erdibideko konfinamendua, Erresuma Batuan hasieran ez zuten konfinamenduaren alde egin eta ekonomia mantentzen saiatu ziren, baina gero aldaketak egin zituzten, AEBetan hasieran ez zituzten neurriak hartu eta orain neurriak hartu dituzte...**

Egia da hasiera batean oso modelo edo teoria ezberdinak egon direla hartu beharreko neurrien inguruan. Erresuma Batuko

presidente Boris Johnsonek hasieran esan zuen hoberena zela lehenbailehen ahal den jende guztien kutsatu zedila, horrela ekonomiari kalterik ez egiteko; AEBetako presidente Trumpek ere oso antzeko teoria zuen hasiera batean, baina azkenean seguraski konturatu dira horrek zer nolako kostu soziala izango zuen haien herrialdeetan, eta horrek politikoki nola eragingo zien; pentsatu dut kalkulu asko egingo zituztela, baina azkenean gauza da egoerak munduko gobernu ia guztiek oso antzeko neurriak hartzera behartu dituela. Esaterako, Boris Johnsonek 180 graduko bira eman zuen bere planteamenduetan. Trumpek ere erabat aldatu du bere diskurtsoa: lehen esaten zuen Aste Santuan irekiko zuela ekonomia, baina orain esaten du maiatzerako edo agian ekainerako ez dela aktibitatea berriz ere hasiko. Honek behartu ditu denak antzeko neurriak hartzera. Zergatik? Oso berandu ibili direlako gobernu guztiak. Badira bi salbuespen, badira gehiago ere, baina bat batez ere Hego Korea izan da. **Hego Koreako kasua berezia da.** Hego Korea garaiz ibili da. Han test asko egin dituzte, mundu guztiari probak egin dizkiote, hasiera hasieratik jakiteko nor zegoen kutsatuta. Gainera, kontrol ikaragarria duen gizartea da eta jarraipena egin diote kutsatutako jendeari, sare sozialen

bidez eta interneten bidez zabaldu dute nor zegoen kutsatuta, inguruan zein jende daukan eta horrela lortu dute Hego Korean geldiaraztea birusaren zabalkundea. Alemanian ere garaiz ibili dira, antzeko neurriak hartu dituzte, baina nik esanen nuke beste faktore batek eragina izan duela: Alemaniako osasun sistema oso-oso sendoa dela. 100.000 biztanleko 29 ohe dituzte zaintza berezietan, UCI-etan, eta Euskal Herrian ez da 10-era iristen. Beraz, birusaren arazoaren aurrean osasun sistemaren prestaketa askoz hobea izan da, zaintza berezien sistemak oso oso ongi prestatuak zeudelako. Horrek ahalbideratu du Alemanian, test asko egitearekin batera, birusaren eragina gelditzea. Eta beste muturreko salbuespen bat dago, Suedia. Suedian ez dute konfinamendurik agindu, ziurren Suedian distantzia soziala beaiekin datorren gauza bat delako. Ez da gauza bera Eskandinavian horrelako neurriak utzi, hau da jendea atera dadila eta arduraz joka dezala, edo hori Euskal Herrian egitea.

AEBetan ez dago Osasun Publikorik, eta egoera horretan birusari aurre egitea konplikatuagoa izango da, ez? Aspalditik AEBetan Osasun Sistema Publikoa eskatzen duen mugimendua lanean ari da, baina orain areagotu da eskaera hori?

Bai. Debate hori mahai gainean dago. 2016ko hauteskundeetan Bernie Sandersek horrekin egin zuen kanpaina, alegia, Europan dugun antzeko modeloetako bat behar duela AEBak, han osasun sistema publiko bat behar duela, osasuna eskubide bat dela eta ez pribilegio bat; sistema pribatuan azkenean ordaindu dezakeenak baino ez du aseguru medikua eta atentzio medikua. Pobrezia

"ZER PENTSA EMATEN DU; NORANTZ GOAZEN, MUNDUA ZEIN PUNTURAINO DAGOEN INTERKOMUNIKATUTA"

"ANTZEKO NEURRIAK HARTU BEHAR IZAN DITUZTE HERRIALDEEK, OSO BERANDU IBILI DIRELAKO"

daudenendako badaudela Medicaid edo antzeko programak, baina badago klase ertain bat, aseguruak ordaindu ez dezakeena, eta gainera sistema publikorik ez egotean ez inongo osasun koberturarik ez duena.

Oso garestiak dira mediku-asegururak AEBetan?

Oso-oso garestiak dira zuk ordaindu behar badituzu. Baina gertatzen dena da lanpostu askotan zuk kontratuarekin batera sinatzen duzula zure kobertura medikua. Hau da, aseguru bat izango duzu zuretzako eta kasu batzuetan familia osoarendako. Baina egoera larritu da, jende asko langabezia dagoelako -azken astean 6 milioi eta erdi estatubatuar joan dira langabeziara- eta horiek guztiek, denek, mediku-asegurua galdu dute. Zuk zure kabuz aseguru pribatu bat ordaintzea oso garestia da, familia batendako izan daiteke 1.000-1.200 dolarretatik gora hilean. Hori oso familia gutxiak ordaindu dezakete. AEBetan munduko ospitale onenak daude, baina ordain dezaketendako dira. Debate hori badago AEBetan, Osasun Publikoa denondako izan behar dela, baina badira oraindik hori babesten ez dutenak; askok esaten dute AEBetan meritokrazia dela gauzarik inportanteena, hau da ordain dezakeenak eta lortzen duenak duela aseguru. AEBetan zu medikura zoaz eta lehendabiziko gauza eskatzen dizutena zure kreditu txartela da. Baina AEBetako Gobernuak esan du COVID-19 sintomak dituztenek dohainik izango dutela atentzio medikua, Gobernuak ordainduko duela hori. Horrek beste hausnarketa batera garamatza: kapitalismoaren edo sistema kapitalistaren ahuldaketak bat hori dela, azkenean sistema kapitalista noizean behin historian sozialismoak salbatu behar izan duela. Gertatu izan delako.

Hori entzun izan da, ez? Zeinen handia den kapitalismoa noizean behin sozialismoak salbatu behar duenean...

Hori da oraintxe bertan Bernie Sandersen kanpainak zabaltzen duen mezua. Egia da, eta hor daude zenbait adibide, krisi finantziarioa dela, edo orain krisi sanitarioarekin gertatzen dena, azkenean Gobernuak hartu behar izaten dituela neurriak nolabait ere sistema pribatua salbatzeko, kasu honetan ere beraien prin-



Mikel Reparaz Extramiana, New Yorken, EITBko korrespondentsal lanak egiten. UTZITAKOA

tzipio guztien kontra. Trump horretan ari da, eta esan du koronabirusa dutenek osasun publikoa izango dutela.

Mundu ia osoa konfinatua dago, edo neurri oso berezi eta zorrotzekin. Emandako datuen arabera, koronabirusak astelehenean munduko 1,3 milioi biztanle gaixotu zituen. Potentziek egoera honi aurre egiten diotenaren arabera ordena ekonomiko eta politiko berria sor daiteke epe motzean. Krisi potoloa dator, Nazioarteko Diru Funtzak ere azaldu du mundua atzeraldian dagoela. Tronuen Joko honetan, zein herrialde ikusten duzu hobeki posizionatua?

Oraintxe bertan ekaitzaren erdian gaude eta ez dakigu nor aterako den garaile, zaila da halako aurreikuspenak egitea. Logikak agintzen duena da oraintxe bertan posizio erosoena Txinak duela. Txina nolabait ere ari zaio hegemonia hori borrokatzen AEBei munduan. Hau guztia Txinan hasi zen, Txinan kontrolatu ahal izan dute, heriotza askorekin baina birusa geldiarazi ahal izan dute eta orain beraiek

dira egoera horren aurrean neurriak har ditzaketanak eta beste herrialdeei lezioak eman ahal dizkietenak. Txina ari da maskarillak bidaltzen, Europako eta Amerikako eta beste hainbat lekutako gobernuak laguntzen ari zaie... Txinak bere posizioa sendotu du munduan. Orain, horrek ez du esan nahi egun batetik bestera, birus hau dela eta AEBren hegemonia amaituko denik. AEBak munduko lehen potentzia dira militariki eta ekonomikoki ere. Baina argi dago honek munduan orekak aldatuko dituela. Gauza da orain borrokaren erdian gaudela eta ez dakigula gu geu ere bizirik aterako garen. Hau guztia baretzen denean ikusi beharko da nola gelditzen diren posizio horiek guztiak ez, zuk esan duzun Tronuen Joko hori.

Europar Batasunean ez dago posizio sendorik, desadostasuna handia da. Espainiar Estatuak eta Italiak laguntza eskatu dute, eurobonoak martxan jartzea, baina Alemaniak eta Herbehereak kontra azaldu dira. Iparra-Hegoa dikotomia

hori beti Europako Batasunean. Justu Erresuma Batua Europar Batasunetik atera denean, honek guztiak ez al du Europar Batasunaren hondamena ekarriko?

Nahiko negargarria da oraintxe bertan Europar Batasunaren jarrera krisi honen aurrean. 2015 urtetik aurrera migrazio krisia gertatu zenean ere ikusi genuen Europar Batasunean elkartasunak ez duela funtzionatzen, ez dela printzipio bat izan beharko lukeen bezala, eta orain hori konfirmatzen ari gara berriz ere. Europar Batasuna beti egon da zatitua, baina orain inoiz baino gehiago esanen nuke nik, herrialde aberats eta pobreen artean, Iparraren eta Hegoaren artean. Hegoaldeko herrialdeek eskatzen dute eurobonoak ateratzea, egon dadila elkartasun bat Europar Batasunarena erakunde gisa gobernu guztiak, eta Alemaniak, Herbehereak eta beste batzuek diote ez dela halakorik gertatuko. Eta baita Europako Komisioko ere. Ursula Von Den Leyen, Europar Komisioko presidentea alemaniarra da eta argi

lerrotu da Alemaniako posizioarekin. Argi ikusten da, Europar Batasunak ez du funtzionatzen erakunde baten modura; eta, jakina, Europatik kanpora ez du irudi sendorik ematen. Krisi handi baten erdian dago aspaldi Europar Batasuna, baina halako egoera batean, gauzak kolokan daudenean eta presio handia dagoenean gabezia horiek gehiago ikusten dira, nabariagoak dira. Europar Batasuna argi uzten ari da elkartasunik ez da-

"TXINA NOLABAIT ERE ARI ZAIO AEB-EI MUNDUAN DUEN HEGEMONIA HORI BORROKATZEN"

"OSO ESPEKTAKULU PATETIKOA EMAN DU EUROPAR BATASUNAK GAI HONEN AURREAN; EZ DAGO BATASUNIK"

goela eta bakoitza bere burua salbatzen ari da. Eta hori beste gobernu batzuek aprobetxatzen dute propaganda egiteko. Hor ikusi dugu Errusiako Armada Erroman laguntza banatzen, Txinak aprobetxatu du bere presentzia erakusteko, Txinako agintariak Erroman egon dira Italian gauzak nola egin behar diren esanez... joko asko ari dira mahai gainean jartzen, eta potentzia bakoitzak bere kartak jokatzen ditu, bereziki Europak erakutsi duen ahuldade ikaragarri horren aurrean.

Europar Batasunak Hegoaldea ez badu laguntzen, Hegoaldea guztiz itota geratuko da datorren krisiaren aurrean...

Europar Batasunak nolabait epeak luzatu ditu, esan du "ikusiko dugu zein neurri hartzen ditugun". Hasi batean esan zuten bi aste behar zituztela horretarako, eta, jakina, krisi eta larrialdi egoera baten erdian, ezin duzu esan ikusiko dugu; neurriak hartu behar dira. Eta hori da Europak egin ez duena. Ikusiko da. Azkenean litekeena da Europar Batasunak eurobonoak edo koronabonoak ez ateratzea, baina ziurrenik bestelako neurriak joango dira hartzen pixkanaka. Dena den, oso espektakulu patetikoa eman du Europar Batasunak gai honen aurrean, beste hainbat gairen aurrean egin duen bezala, eta zuk zeniona, azkenean hau dator testuinguru politiko oso zehatz baten ondoren, Erresuma Batuak Europar Batasuna utzi eta gero. Europar Batasuna osatzen duten estatuen artean arrakalak gero eta handiagoak dira eta proiektuak ere ez dira berdinak, Ekialdera begiratzen badugu batez ere. Hor daude Polonia, Txekia, Hungaria, oraintxe bertan Europar Batasuneko Justizia epaitzekiek salatu eta kondenatu dituzten herrialdeak, errefuxiatuen kuotaren inguruan. Zatiketa ikaragarria dago Europar Batasunean, ez bakarrik Iparraldearen eta Hegoaldearen artean, hori historikoki Europar Batasunean horrela izan delako, baita ere Ekialdearen eta Mendebaldearen artean. Bakoitzak bere proiektu oso-oso ezberdinak ditu, eta kasu batzuetan talka egiten dute elkarren artean. Oraintxe bertan ez dago batasunik; Europa bai, kontinente gisa, baina Europar Batasunik oraintxe bertan ez da existitzen.



Mikel Reparaz ETBko nazioarteko arduraduna da eta etxetik ari da telelanean. UTZITAKOIA

"Egoerak nire liburuaren argitalpena atzeratu du"

ETBko nazioarteko arduraduna zarenez, ETBko berriemaile eta korrespontsal guztiak koordinatu beharko dituzu, Frantziako berriemaile den eta lehengusina duzun Nerea Reparaz arbizuarrak, besteak beste. Etxetik ari zara, telelanean. Aitortu, telelanean askoz ere gehiago lan egiten da...

(Kar, kar...) Dudarik gabe. Orain korrespontsal gisa egin ditudan urteak sarri etortzen zaizkit burura. Korrespontsalei oso gutxi aitortzen zaie hori, baina egia da, 24 orduz aritzen zarela lanean. AEBetan dauden ordu aldaketekin are gehiago, eta gainera irratia eta telebista, hainbat gauza egiten dituzunean.... Orain hori ikusten ari naiz bertan. Etxean zaudenean ez duzu ordu-tegirik eta inportantea da gauza horiek markatzea, baina egia da kazetaritza bezalako esparru batean ez dagoela mugarik; beti gertatzen dira gauzak, ez dago inoiz atsedenik, gainera munduari begira zaudenean, nazioarteko gauzak egiten dituzunean, beti sortzen dira albisteak, suak hemen, han... oso zaila da. Eta telelana egin duenak, etxetik lan egin duenak, bada hori. Bada-ki azkenean muga falta horrek

lana biderkatu egiten duela eta askoz ere lan gehiago egiten dela ordutegi zehatz batekin baino.

Bi seme dituzue. Nola moldatzen zarete?

Txikienak 9 ditu eta zaharrenak 13 egin ditu. Orokorrean ongi daramagu, baina egia da momentuak daudela. Umeek duten energia hori erre egin behar dute, eta etxetik atera gabe hori kudeatzea zaila da. Sarritan esaten dut: banoa Arbizura, airea hartzera... baina ezin da. Haurrek klaseak online izatearena nik uste dut badela ere proba handi bat, eta segur aski gauzak aldatuko ditu hezkuntzan ere. Kontuan hartu behar da belaunaldi berri horrek oso barneratuak dituela teknologia berriak, eta hizkuntza hori dominatzen duela, bideokonferentziak, Googleleko Classroom aplikazioa... Ziurrenik hemendik ere gauza positiboak aterako dira.

"LAS GRIETAS DE AMERICA DU IZENA LIBURUAK ETA ARDATZ NAGUSIA BERTAKO ARRAZAKERIA DA"

Hortaz ez zaude Guraso Agobiatuen Klubean, Mikel? Akaso semeak koxkortuta daudelako?

(Kar, kar...) Bai, ez da gauza bera. Nire arrebak ume txikiak ditu, 5 eta 2 urtekoak. Hor konturatzen naiz beste kontu bat dela, berak nola daraman... Txikiak direnean zuk kudeatu behar duzu dena, baita euren aisialdia ere. Oso gaimean ibili behar duzu. Adin batetik gora badituzte euren interesak, irakurtzen ez bada musika jotzen, edo bideo-jokoekin... eta komunikatuta daude bere lagunekin, baita AEBetako lagunekin, etengabe ari dira hizketan... beste gauza bat da, oso ezberdina.

Osasunez ongi zaudete?

Familiar egokitu zaigu birusarekin hildako bat. Kasuak bai, asko, gehienetan zorionez arazorik gabe, baina geroz eta gehiago, bai hemen eta bai New Yorken dauden lagunen artean. Munduan 1,3 gaixo daudela esan dute, baina gustatuko litzaideke benetan jakitea zenbat kasu dauden... gaixotasuna oso zabaldua dago. **Azken orduko aldaketarik ezear badago maiatzaren 12an zure lehen liburua salgai jarriko da, "Las grietas de America".**

Bada, azken orduko aldaketa dago. Planetak argitaratuko du liburua, eta koronabirusa dela eta bere produkzio osoa gelditu du Planetak, izan ere oraintxe bertan argitaletxeek ez dute distribuziorik, liburu-dendak eta halakoak itxita daudelako. Pentsatzen dut uda inguruan kale-ratuko dela liburua, zain gaude. **"Las grietas de America" du izena. Osaba Samen herrialdeko zirrikietan sartu zara?**

Liburuaren ardatza batez ere AEBetan oso barneraturik dagoen arrazakeria da. AEBk nolabait ere nola dauden eraikiak eta nola arrazak, oraindik ere, baduen ikaragarriko garrantzia. Badi-rudi Obama lehen presidente beltza boterera iritsi zenean gauza horiek amaitu zirela, baina ez da hala izan. Liburuan kontatzen dut, lekukotasun askorekin eta historia pertsonal askorekin, nola dagoen hori guztia antolatua, AEBetako politikan zein garrantzitsua den beldurraren eta arrazakeriaren erabilpena, boteretik nola erabiltzen diren. Eta hori guztia ikuspegi historiko batetik, nire korrespontsal urteetatik, Obama eta Trumpen Amerika artean. Ardatza bere garaian gertatutako bi heriotza dira. Batetik, 2015ean Baltimoren Freddie Gray izeneko mutil beltz bat hil zuen polizia, eta horrek izugarriko matxinada eragin zuen. Nik oso gertutik jarraitu nuen. Bestetik, 2017an Charlottesvillen talde neonaziak eta arrazistak kalera atera ziren momentu hori, Trump gobernura iritsi ondoren. James Alex Fields neonaziak atentatu bat egin zuen autoarekin, eta Heather Heyer hil zuen, Bi heriotza horien artean kokatzen da nire historia.

Bi Amerikak.

Bai, AEBetako gizartea erabat zatitua dago. Ez da bakarrik Trumpen Amerikaren errua, nik esanen nuke Obamaren gobernuarekin zatiketa areagotu egin zela, arrakala horiek sakondu egin zirela, eta horrek ondorio asko ekarri ditu, besteak beste Trump bera, AEBetan eskuin muturreko gobernu bat egotea

"IKUSPUNTU HUMANO ETA SOZIAL BATETIK, AEB-AK OSO INTERESGARRIAK DIRA"

lehen presidente beltzaren ondoren. Testuinguru horren inguruan dago liburua.

Munduan barrena ibili zara, baina ematen dit zu gehien markatu zaituen herrialdea AEBak direla. Noiz-bait hara itzuliko zara?

Duela hilabete eskas han egon ginen, bisitan, lagun asko ditugu han. Nire semeek haurtzaroaren parte handi bat han egin zuten eta hori ere saiatzen gara mantentzen. Baina gehien markatu nauena... Azken urteetan bai, zalantzarik gabe, nire bizia han egin dudalako, baina ez dakit esanen nukeen hori dela nire ibilbide pertsonal guztian gehien markatu nauena. Irailaren 11 ondotik egokitu zitzaidan Afganistango gerraren hasiera kontatzea, Ekialde Hurbilean Kaukasoa Georgiako gerra jarraitu nuen 2008an eta horrek ere asko markatu ninduen, Libiako Iraultza... gauza asko dira...

Atzera egiten hasi eta guztiak marka uzten du, ezta?

Bai, nazioarteko kazetaritza egiten dugunok, azkenean, gauza horiek guztiak motxilan daramatzagu.

Itzuliko zinateke AEBetara bizitzera?

Betirako uste dut ezetz, baina itzuliko nintzatekeen, baietz uste dut. Orain beste proiektu batzuekin ari naiz, baina zergatik ez? Hemendik ikusita AEBak iruditzen zaizkigu... ez dakit...

Idealizatuta ditugu.

Bai, batzuek idealizatuta dute eta beste batzuek demonizatuta. Eta han dagoen zatiketa hori hona etortzen da, azkenean gu kulturalki AEBetako inperio kultural horren parte garelako, nahi eta nahi ez izan. Influentzia handia dator kiguru handik, eta hori bakoitza bere modura bizi du. Baina egia da AEBak oso interesgarriak direla, ikuspegi humano eta sozial batetik. Bertatik etorri zaizkigu hainbat gauza on eta txar, baina onak ere bai. Eta hainbat konkista ere. Esaterako, burura etortzen zait LGTB mugimendua, New Yorken hasi zen, Stonwalling izeneko tabernan. Maiatzaren lehena Chicagon gertatutako langile matxinada batetik dator... Kontuan hartu behar da AEBak etorkinek egindako herrialde bat dela. Eta New York kulturalki da Alexandria berri munduan. Ikaragarria da New York, hiri bezala eta kulturalki. Bere gauza onak eta txarrak ditu, beste toki batzuk bezala, baina oso interesgarria da.



Satrustegiko hilerria, eta hormaren bestaldean herria eta Arakil ibarraren ikuspegia. ARTXIBOA

Egoera gizatiarra egiteko erronka

Doluz daudenekin lanean aritzera ohituta daude ehorztetxeetako langileak. Lan gehiago dute egun hauetan. Baina larrialdi egoeran ezarritako neurriek aldaketak ekarri dituzte haien lana egiteko eran. Eta, ondorioz, hildakoak agurtzeko eta dolua bizitzeko modua ere

Eneida C. M. / Alfredo A. I. SAKANA Bizitzak eta heriotzak segitzen dute, baina maite zuten pertsonetikiko dolua beste modu batera bizitzera behartuta daude gaur egun senide, lagun eta hurbilekoak. Aginduak zorrotzak baitira: gorpuk behin kutxan sartu eta hura zigilatu ondoren ezin da zabaldu, beraz, ezin da hildakoarekin inolako kontakturik izan; gorpuen beila egitea debekatuta dago; gorpuei ezin zaie ez tanatoestetikako ez tanatopraxiako praktika egin; erlijio-kultuak edo hileta-zeremonia zibilak alarma-egoera bukatu arte egitea atzeratu dira, eta hildakoaren ehorzketarako edo hilobiratzeke segizioan gehienez ere hiru senidek edo hurbilekoek eta kultuko ministroak edo haren parekoak besterik ezin dute osatu, beti ere, haien arteko distantzia errespetatu beharko dute.

Egoera berriak ehorztetxeen lana erabat aldatu du eta Mikel Idoatek (Izarra) eta Izaskun Iparragirrek (Irache) eraginaren berri eman digute.

Bat-batekoa

Biek aitortu digute hasieran COVID-19 gaitza "urrutikotzat" jo zutela. Idoatek hasierako egunetako urduritasuna du gogoan. Bat-bateko aldaketa hori Altsasuko Beilatokian familia batekin zegoela bizi izan zuen Iparragirrek: "Ostegunean-edo izan zen. Jada esana zuten kontuz ibiltzen hasi beharko genuela. Normalean,

"ERRAUSTU DAITEKE EDO LURPERATU DAITEKE. FAMILIAK NAHI DUENA EGITEN DUGU"

familia sartzean beti agur bero bat egiten diegu, familiak momentu horretan hori behar baitu. Bada, barkamena eskatu nien ezin nintzelako nahi bezala hurbildu". Familiako kideak ulertu zutela eta batzuk eskularrekin eta maskararekin joan zirela gogoratu du Iparragirrek. "Hildakoa nahikoa gaztea zen eta bi egunetan 15 pertsona pasako ziren. Normalean jende asko pasatzen da". Bulegoan zegoela, "hainbat e-posta iritsi ziren denbora gutxian". Mezutik mezura araudia aldatzen zihoan. Geroko erabakiak goian aipatutakoak dira.

Baina Idoate ez dago ados erabaki horiekin: "guk gobernuari, Iruñeko Udalari eta abar gure ideia zein den adierazi diegu. Pentsatzen dugu halako neurri batzuk hartu direla Madrilen zegoen egoeran pentsatuz eta ez

Nafarroakoan. Gainera, Nafarroan ere ez da berdin Iruñea, ez da berdin Etxarri, Altsasu edo Olatzagutia. Uste dugu bagenuela gaitasuna herri bakoitzaren beharretara moldatzeko. Birus hau eten behar da. Baina prebentzio neurriak ez daude kontrajarriak agur duin bat egitearekin, agur pertsonal bat egitearekin".

Neurriak

Araudiari segituz "prebentzio neurri handiak hartzea tokatu zaigu", azaldu digu Idoatek. "Buzoa, kaltzak, betaurrekoak, maskarak, eskularri bikoitzak jartzen ditugu gorpuk jasotzeko badaezpada ere", zehaztu du Iparragirrek. Izarrakoak nabarmendu duenez, prebentzio neurri horiek bai langileei bai familiei begira hartu dituzte, inor ez kutsatzeko. Irachekoak gogorarazi du haiek ospitaleetan adinduen egoitzetan, etxe partikularretan... leku askotan ibiltzen direla eta ez dutela inor arriskuan jarri nahi. Horregatik, "ahal den neurrian, telefonoz, whatsapp edo e-posta bidez... Momentuz, horrela moldatu behar dugu". Idoatek gaineratu duenez, "beste guztia berdinean egiten da. Azkenean zerbitzua egiteko familiak beilatokira etorri behar du".

Izarrakoak argitu duenez, "erraustu daiteke, lurperatu daiteke. Familiak nahi duena egiten da". Beste zehaztapen bat ere: "hildakoak beilatokietan egoten dira. Nafarroan ez dago telebistan ikusten ditugun gorputegi horietakoetan egoten".

Agurraz

Iparragirrek aitortu digunez protokoloa ezartzea "oso-oso-oso gogorra izaten ari da, gehienbat familiendako. Berez, egoera nahikoa gogorra da, eta horrek dena zailtzen du". Bat egin du Idoatek: "azken agurra ematera. Hori da jendeari gehien kostatzen ari zaiona". Esaterako, ospitalean hildako pertsona baten senideek eta hurbilekoek zendua etxetik gaixo joaten ikusi zuten azken aldiz. Ez dute gehiago ikusiko, hilkutxak ezin baitira zabaldu.

"OSO-OSO-OSO GOGORRA IZATEN ARI DA, GEHIENBAT HILDAKOEN FAMILIENDA KO"

Iparragirrek: "gainera, COVID-19rekin hiltzen direnean hurbileko familia berrogeialdian dago, etxetik ezin atera, gehienak kutsatuta baitaude".

Jende askoren egoeraz gogoe-ta egin du Idoatek: "zure aitari, zure amari azkeneko muxu hori ezin emateak, azken agur hori ezin eman ahal izateak eta, dolu prozesua hasteko, beilatokian berarekin ezin egon ahal izateak, jendea normalean baino ukitutago uzten du". Irachekoak aitortu du haiendako ere hartutako neurriak "oso gogorak" direla. "Niri familiak esaten didanean: hurbilekoek ere ezin dugu beilatokian egon? Edo, arropa hau prestatuta geneukan ama janzteko. Neurriak bete, ezin dugu besterik egin". Izarrakoak azaldu duenez, "saiatzen gara zerbitzua ahalik eta humanoen izaten. Ez dugu ahaztu behar hildako bakoitza pertsona bat dela, eta familia bat duela, sentimenduak daudela. Hori oso ongi kudeatzen jakin behar dugu egoera zail hauetan ere". Langileen trebakuntzan azpimarratu du.

Idoatek azaldu duenez, hildako baten inguruan "beti emozioa dago, mina ere. Baina agurra desberdina zen, lasaiagoa zen. Egunotan jendea askoz okerrago ikusten ari gara". Hori arintzeko neurri batzuk izan dira: "hildako bakoitza bere argazkiarekin, bere loreekin, argazki bat ateratzen diogu tumuluan dagoen kutxarekin eta abar. Familiak, behintzat, jakin dezan: hildakoa hor dago, baina duintasunez agurtzen ari da bere burua ere". Izarrakoak azpimarratu duenez, "pertsona bakoitzaren atzean familia bat eta bere senideak, lagunak eta abar daude. Hori ulertzen duzunean eramangarriagoa egiten da zerbitzua, eta zerbitzua ere hobea da".

Iparragirrek azaldu digunez, "egia da ere, familia gehienek errespetatzen dutela. Ez dut esanen erraz, baina badute egoeraren berri. Ni beti sentitu naiz estimatuta familien aldetik". Eta 90 maskara donatu dizkien Urdiaingo Mari Carmen Escalanterekin gogoratu da: "dena horren zaila eta hotza izaten ari da familiekin... Maitasuna edo estimua sentitu dugu. Eta bihotzez eskertu nahi diogu gurekin izan duen detailea". Bitartean segitzen dute malkoak, errausketak, ehorzketak, doluminak, eskelak... Bizitza.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Koronabirusak eraginda mundua hutsik gelditu da. Alarma egoera eta konfinamedua hasi aurretik ere bidaiak bertan behera uzten hasi ziren. Bidaiatzeko ilusioak ere eten ziren, eta Aste Santuko opor egun hauetan turistez eta bisitariez beteta egongo liratekeen Bartzelona, Madril, Sevilla, Paris, Londres eta beste hainbat hiri ospetsu, gaur egun isilik daude. Beste hainbat sektoreak kolpe handia jaso du. Valen Ormazabal Goazen bidaiak bidai-agentziaren eta San Pedroko bidea landa-etxearen jabea da.

Noiz nabaritu zenuten koronabirusaren eragina?

Landa-etxean martxoko lehenengo astetik nabaritzen hasi nintzen; eta ez bigarrenetik, hemen dena hasi zenean. Dena pikutara joaten ari zela nabaritzen hasi ginen. Jendeari kostatu zitzaion, baina gero bertan behera uzteak bata bestearen atzetik etorri ziren. Bidai-agentziendako okerrago izan zen: bi hilabete eta erdi hauetan egindako lan guztia pikutara joan da. Gainera, antolatutako bidaien dirua itzuli behar dut. Hala ere, hasi aurretik jendea agentziara etortzen zen eta nik egoera ikusita esaten nien ez niela salduko.

Beraz, egoera larria da: bidaiak ezin saldu eta bertan behera utzitakoen dirua itzuli behar duzu.

Bezeroei aurreratutako dirua itzuli behar zaie, eta itzultzea kostatzen zaie. Inmersokoak ez dakit noiz itzuliko duten, beste bidaiak batzuk itzultzen ari dira eta hegazki konpainiak ere konpainiaren arabera. Batzuk dirua itzuli dute eta beste batzuk bono bat eman dute ahal denean erabiltzeko.

Zein eragin izan du osasun krisiak turismoaren arloan?

Turismo sektorearendako kolpe handia izan da. Hondoratuta utzi gaitu oraintxe bertan. Hau guztia bukatzen denean, ez dakidala noiz bukatuko den, jendeak egin nahiko duen lehenetariko gauza etxetik ateratzea izango da. Hori argi daukat. Hasieratik ezingo gara kanpora joan, eta, beraz, penintsula barneko turismoa handituko da. Horrek mesede egingo digu. Nik bidai-agentzian bidaiak saltzen ditut, baina hona ere taldeak ekartzen ditut. Nafarroa saltzen dut. Orduan, nik ditudan kontaktuen-

"Bidaia bat egiteko ilusioa ez da inoiz galdu behar"

VALEN ORMAZABALA BIDAI AGENTEA

Turismoaren sektorea "hondoratuta" gelditu dela esan du Valen Ormazabal bidai agentea eta landa etxe bateko jabea. Hala ere, krisiari alde positiboak ikusten dio

gatik jendea etorriko da, baita Nafarroako jendea ere hona etorriko da. Dagoeneko jendea interesatuta dago. Oraingoz ez ditu erreserbarik egiten, baina informazioa eskatzen dute eta hemengo eskaintzagatik galdetzen dute.

Dataren bat aipatzen dute? Noizko egiten ari da jendea planak?

Urrirako. Guk ere data hori aurreikusten dugu. Are gehiago, Gironako talde batzuk ipar mar-txa egitera etorri behar ziren Aste Santuan eta dena urrirako aldatu dute. Nik uste uda galduta dugula. Agian abuztua salba dezakegu, baina ez nago oso ziur.

Urtea aurrera ateratzeko aukera izango duzue?

Urtea ez dugu inolaz ere salbatuko. Gure denboraldi fuertea Aste Santutik urrira arte da. Urria oso hilabete ona da hemen mendiagatik. Oso ona da. Baina hori kenduta... pentsa.

Txinan lehenengo koronabirus kasuak abenduan agertu ziren. Horrelako zerbaite gertatuko zela uste zenuten?

Ni urtarrilean Fiturren egon nintzen, Madrilen, eta txinatar pila batekin egon nintzen. Gero beldurrarekin etorri nintzen, egia esan. Fitur Turismo azoka garrantzitsuenetarikoa da. Izugarri handia, eta normal egon ginen. Ez zen ezer aurreikusten; inork ez zuen horrelako egoera bat planteatu.

Eta bat-batean mundua gelditu zen.

Guztiz. Baina beste alde batetik ongi etorriko zaigu reseteo bat egiteko eta gauza berriak egiteko eta planteatzeko. Berritzeko garaia dela uste dut, eta arlo honetan hoberena izateko pres-tatzeko.

Krisia nola kudeatzen ari zarete? Administrazioetik laguntzen dute?

Pertsonalki ni lande etxeetako federazioan nago eta astelehenean sektore guztiaren bilera bat izan genuen Maitena Ezkutarirekin. Hainbat gauza planteatu zaizkie. Sektore guztiak gaude kaltetuta, baina gure da gehienetikoa. Orduan, ez dakit oso ongi zer aterako den.

Zer eskatzen duzue?

Autonomo guztiak eskatzen dutena, orokorrean. Kuotak barkatzea eta emango diguten laguntza aurreratzea. Sektoreko lagunekin hitz egiten eta, zorionez, landa-etxea nirea da eta ez dut alokairurik ordaindu behar. Baina izango dira sektoreko kideak benetan gaizki pasako dutenak. Lan mahai sektoriala behingoz egitea eskatzen dugu ere non turismo arloko alde guztiak mahai berean esertzen gara. Marka on bat lortu behar dugu saldu ahal

"TURISMO SEKTOREARENDAKO KOLPE HANDIA IZAN DA. HONDORATUTA UTZI GAITU"

izateko. Nire esperientziagatik eta ikusten dugunagatik, Nafarroak badu marka egina, baina indar gehiago eman behar zaio.

Zer ondorio ekarriko ditu?

Espero ostalaritza establezimendurik itxi behar ez izatea. Baina pentsatzen dut Sakanan bidai-agentzia dituzten lagunetan, lokal baten alokairua, markaren kanona eta autonomoen kuota ordaindu behar dutenak... egoera larria da. Egoera horretan egongo banintz oso zaila izango litzatekeela iruditzen zait. Baina ez dakit nola egongo diren, ez dut haiekin hitz egiteko aukerarik izan.

EGOERARI AURRE EGITEN

Alde positiboak atera daitezke?

Nik uste berritzeko garaia dela. Buruari bueltak emateko eta gauza berriak ateratzeko momentua. Hoberenak izatea. Landa-etxeetat ez dugunez bizi, alde horretatik nik uste ongi mantenduko garela. Hor jarraituko dugu. **Duela gutxira arte debatea masifikazioa eta turistifikazioa zen. Orain hiriak eta toki turistikoak hutsik daude. Gai honi buelta emateko momentua da ere?**

"BIDAIATZEKO MODUA EGOKITZEKO ETA MOLDATZEKO AUKERA EMANGO DIGU"

Noski. Aspaldi badago gure sektorearen barruan masifikazio nahi ez duen mugimendu bat. Nik lan egiten dudun taldeak gehienez 15 pertsonakoak dira. Horrelako masifikazioak ekiditeko. Nik ez dut inoiz Sakanarako hori nahi izan. Izan zitekeela potentzial handia duelako. Gainera, ez dago ustiatuta. Baina mugimendu hori dago, eta nik uste orain gehiago izango dela. Fiturren eta azoketan eskaintako guztia talde txikiak ziren. Eta orain zentzu handiagorekin ikusten ari garela ingurugiroa berreskuratzen ari dela eta behar zuela ere. Turismoak kalte handia sortu du alderdi horretatik. **Beraz, turismoaren irudia hobetzeko balio dezake?**

Nik uste baietz. Konbentzitututa egon nahi dut. Puntu garrantzitsu bat da. Hainbeste masifikatzea, Bartzelonan, Madrilen edo Donostian bertan kaletik ezin ibiltzea ez da ona. Nik uste ongi etorri zaigula hau bidaiatzeko modu hori egokitze eta moldatzeko. Gainera, sei urte dar-matzat landa-etxearekin eta konturatu naiz jendeak herriko jendearekin nahastea bilatzen duela. Altsasura etortzen dena zein Tailandiara doana. Gida bat hartu eta bere atzetik joatearen modelo hori nik uste bukatzen ari zela eta orain gehiago. Turismoa buelta hori ematen ari zen.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ni ez naiz atzera egiten duen pertsona. Pertsonalki gertatzen zaidan guztiari, eta gauza asko gertatu zaizkit, beti puntu positibo ateratzen diot. Badakit gaizki pasako dugula, baina alde ona ateratzen diot. Aukerak bilatzea eta buruari bueltak ematea landa-etxe hoberena izateko. Tratu hoberenarengatik desberdintzen dena. Edozein zerbitzu ematen dela ere, ostalaritzan, esaterako, tratu ona eman behar da. Zonalde honetan jendea beti ongi hartu dugu. Andaluziako edo Levanteko jendeak aurreiritziak izan ohi ditu eta hotzak garela esaten dute. Baina beste irudi batekin joaten dira. Oso ongi hartzen ditugula diote. Egia da aukera bat da beste ematen diegun zerbitzuari buruz hausnartzeko.

Sakana marka indartuta atera daiteke?

Denak atera gaitzke indartuta. Denak norabide berdinean joan behar dugu, eta hori da zailena. Sakanan turismo elkarte bat

dago, ni bertan nago, eta tresna interesgarria da zalantzak dituenarendako eta hamaika gauzei buruz informatzeko. Ez bakarrik orain, beti.

BIDAIARIAK

Zer gomendio eman diezaiekezu bidaia bat hartuta zutenei?

Pazientzia izateko. Bidaia galdu dutenei dirua berreskuratzeko pazientzia izateko, eta antolatuta zutenei baina oraindik bertan behera utzi ez dietenei ere, pazientzia izateko. Nik bidaia bat daukat ekainean, iaz hartu nuen, eta itxoin behar dut azken egunera arte kopainiak bertan behera uzteko. Bestela, beldurragatik balio gabetzen baduzu, beldurra ez dizu inork ordainduko eta dirua galtzen duzu. Beraz, hobe da itxoitea data iritsi arte dirua berreskuratu nahi bada.

Beraz, ekainean, uztailean edo abuztuan bidaiak hartuta dituztenean, alarma egoera kentzen badute eta bidaiatzeko baimena ematen badute, bidaitzera animatzen duzu jendea, ez?

Bai. Beste aukera bat, nire ustez hoberena, datak aldatzea da. Bidaia bat ilusio handiarekin prestatzen da, izan ere, bidaia batek konnotazio asko ditu. Ez da bakarrik bidaiatzeko disfrutatzea. Bisitatuko dituzun tokiak begiratu eta antolatu... ilusio handiarekin prestatzen duzu. Eta ilusioa ez da inoiz galdu behar. Beraz, ezin baduzu, Aste Santuan edo maiatzean joan, urte bukararako utzi. Ahal badute, behintzat, hobe datak aldatzea. Ez sektorea laguntzeagatik, baizik eta ezin delako bidaia hori egitearen ilusioa galdu. Are gutxiago orain. Ilusio pixka bat behar dugu, baita haizea hartzea ere. Gero bakoitzaren ekonomia egoera kontuan hartu behar da. Izango dira dirua jasotzea nahia-gu dutenak ere.

Prezioak igoko edo jaitsiko dira?

Inork ez du ezer esaten. Nik ez dut bidaia baten eskaintza bat jaso martxoaren 20tik. Niri handizkari guztiek egunero eskaintza pila bat bidaltzen dizkirate. Eta orain ez dit inork ezer bidaltzen. Gainera, hemen Punta Canara eta Caribera joateko ohitura handia dago, eta bertan orain hasten da dena, guk lau aste daramatzagunean. Uste dut krisi honetatik ateratzea gehiago kostako zaiela. Beraz, nik uste hasieran ezin-



Valen Ormazabal turismo agentea. UTZITAKOIA



San Pedroko Bidea landa-etxea. UTZITAKOIA



Valen, eskubian, Fitureko Nafarroako stand-ean. UTZITAKOIA

"GERTU DITUGUN LEKUAK BALORATZEN ETA GAUZA TXIKIAK DISFRUTATZEN IKASIKO DUGU"

"ITXIARAZI ZUTENEAN LANDA-ETXEAN LANGILEAK NITUEN, EZIN NITUEN KALEAN UTZI"

go izango dugula eskaitza handirik egin. Baina ideiarik ez. Hegazkin konpainiak ere diru asko galtzen ari dira.

Krisi ekonomikoa datorrela diote. Kontziente zarete?

Kontziente bai, baina nola prestatzen zara? Argi dago egoera ekonomiko txar batetik pasatzen bazara lehenengo gauza bidaiak eta atera ahal izatea kentzen dela. Logikoa da. Nik kenduko nukeen lehenengo gauza da, eta nire buruaren kontra egiten ari naiz. Agian ezingo zara Punta Canara joan, baina Iratira edo Bardeetara joan gaitzake. Bidaiatzeko modua aldatu daiteke. Beti esaten dugu: herrialde urruenetara joaten gara eta etxe ondoan duguna ez dugu ezagutzen.

LANDA-ETXEA

San Pedroko Bideaak funtsezko zerbitzuak eskaintzen ditu. Zer esan nahi du honek?

Nik landa-etxean aritzeko langileak hartzen ditut. Establezimendu guztien itxiera ezarri zutenean nik langileak nituen, eta hasieran apirilaren 8ra arte iraun behar zuen arauak. Nik gobenuari deitu nion eta esan nion zein zen egoera, ez zitzaidala ez etiko ez morala iruditzen pertsona horiek kalean uztea. Izan ere, lanera joan behar zuten. Orduan, planteatzen ari ziren horrelako hainbat ostatu uztea. Oraintxe bertan ez dago inor lantokiak itxi direlako, baina osasun langileendako edo garraiolarientzako irekita dago.

Ostatuen egoera asko aldatu da lau aste hauetan.

Askok, bai. Ni izutu nintzen horregatik. Pertsona hauek ia urte osoan eta aspalditik etortzen dira, eta ni oso gaizki sentitzen nintzen. Nire etxera etortzen den guztia ongi hartzen dut, baina gainera betidanik etortzen den bezero bat kalean uztea, geunden egoeran. ezin ginela kalera atera eta lan egin behar zutela... niretako oso gogorra izan zen. Baina Nafarroako Gobernuak azkar konturatu zen. Nik deitu nuenerako ari ziren zerbitzu prestatzen. Ni ez nintzen lehenengo izan. Oporretara etortzen dena ez duzu hartzen; zertarako dator. Baina horrelako bezeroak zaindu behar dituzu. Eta badakit egoera berezuan zeuden batzuek ez dietela irekitzen utzi. Orain norbaitek zerbitzu honetara batu nahi badu, uste dut aukera duela.

Baina oporraldirako itxita dago. Noiz arte?

Mendi lasterketa guztiak bertan behera gelditu dira: Zegama-Aizkorri, Laumilak... Badira familia batzuk urtero etortzen direnak eta hemen lau egun pasatzen dituztenak. Zegama-Aizkorri enpresa batekin lan egiten dut eta hori guztia erori da.

ITXIALDIA

Egun hauetarako lehiaketa bat antolatu duzu. Zertan datza?

Nahi duen guztiak bidaia bateko argazkia jarri dezake Goazen bidaiak-eko Facebook-eko horman eta atsegin dut gehien duen argazkiak saritxo bat irabaziko du: baso bainua. Esperientzia berri bat da Sakanan eta gure hariztietan egiten da. Japoniako terapia bat da, Shinrin-Yoku, guk bizitza osoan egin izan duguna. Basoan oinutzik joatea eta hostoak, zuhaitzak eta abar ukitzean datza. Badago hiriko jendea ez duena inoiz horrelako esperientzia bat izan. Meditazioa egiten da ere.

Hau dena bukatzen denean... Zer egingo duzu?

Mundu guztia besarkatu. Oso pertsona soziala naiz, eta gehien faltan botatzen dudana bizitza soziala da. Lagunekin kaña bat hartzea edo Aralarko San Miguelera igotzea eta gure pasaia eder hori begiratzea. Lehen asko betetzen ninduen eta orain... Lehenengo aldi hori izugarria izango da. Baina, besterik gabe, buelta bat ematera joatea. Gauza txiki horiek orain arte estimatu ez ditugunak. Batzuetan horrelako kolpe bat behar dugu gauza txikietaz ohartzeko, benetan zoriontsu egiten gaituzten gauza horiek.

Eta zer bidaia proposatzen dituzu?

Niri asko gustatzen zaizkit esperientzia eta leku txikiak ezagutzeko. Esaterako, Cantabriara, Huescara edo Zaragozan dauden leku oso polit batzuetara joatea. Mendian ibiltzean gustatzen zait eta horrelako irteerak hoberenak dira. Lagunekin landaxe bat hartu, lagunekin egon eta ongi jan. Eta kuadrillan egotea. Niretako hori izango da egin daitekeen hoberena. Familia egoteaz nekatu egingo garenez, hobe kuadrillan egun batzuk pasa. Haur txikiak dituztenendako ere aukera oso ona da. Nahiz eta hemendik oso gertu egon.

Maidar Betelu Ganboa URRITZOLA

Donostiako Antiguon bizi da Ibai Gonzalez arraunlari arakildarra, baina etxean, Urritzolan dago konfinamendua egiten.

Non harrapatu zaitu honek guztiak?

Urritzolan harrapatu ninduen, gurasoekin bi aste pasatzeko asmoa bainuen. Gimnasioan egiten genuen entrenamendua hemen egitea zen nirea asmoa, eta orduan ergometroa, arraunketa lantzeko gimnasioan erabiltzen duguna, hona ekarri nuen. Eta pentsatu nuen konfinamendua hemen askoz hobeto pasako nuela, Urritzolan.

Joan zen urtean Eusko Label Liga irabazi zenuten eta Jon Salsamendi zuen entrenatzaileak helburu potoloak ditu aurtengorako ere; eta, bat-batean guztia geldirik.

Azaroan hasten gara denboraldiko entrenamenduekin; neguan, asteen zehar gimnasioa, ergometroa eta korrika entrenamenduak egiten ditugu, eta asteburuan itsasora ateratzen gara. Justu tarte honetan hasten ginen itsasora pixka bat gehiago ateratzen, asteen barna ere, eta honek erabateko aldaketa arradikal bat ekarri digu, etxean entrenatzen ari baikara.

Jon Salsamendik etxeko entrenamenduak pertsonalizatu dizkizue? Arraunlari bakoitza bere kabuz ari da edo teknologia berrieekin arraunlariak konektatu eta elkarrekin aritzen zarete?

Hasiera batean arraunlari bakoitzaren errealitatera entrenamenduak egokitzea izan da Jon Salsamendiren helburua; hori lotuta, gaur egungo aplikazioek behintzat erraztasun batzuk ematen dituzte eta asteburuetan, larunbat eta igande goizetan, bideokonferentzia halako batean elkartu egiten gara taldekideak eta batera entrenatzen dugu. Berez ez da entrenamendua kontrolatzeko saioa, alderdi psikologikoa lantzeko da gehiago, ikusteko oraindik taldea izaten jarraitzen dugula. Egia da asteen zehar bakarrik entrenatzea gogorra egiten dela. Gimnasioan denbora asko pasatzen dugu arraunlariak elkarrekin, eta gogorra egiten da bakarrik entrenatzea; horrela, poztasun txiki bat ematen digu asteburuan elkarrekin entrenatzen ikusteak. **Zenbat ordu entrenatzen dituzue normalean eta zenbat orain?**

Entrenamendu orduak ez dira aldatu. Gutxi gorabehera 2-3 ordu artean aritzen gara.



Ibai Gonzalezek besteak beste ergometroarekin eta bizikleta estatikoarekin entrenatzen du Urritzolan. UTZITAKOA

"Bakarrik entrenatzea gogorra egiten da"

IBAI GONZALEZ ORIOKO ARRAUNLARIA

ARRAUNA Ergometroa eta bizikleta estatikoa dira egun hauetan urritzoldarraren bidaide nagusiak. Eusko Label Ligak erabakitzen duenerako prest egongo direla nabarmendu du

Talde bakoitzean denok arraunketa berdina egiten duzue, sinkronizatua, eta horretarako entrenamendu espezifikoak egiten da. Hori traineruan entrenatzen da...

Alderdi hori ezin dezakegu espezifikoki landu, bakoitzak etxean entrenatzen dugulako, baina arraun talde guztiak baldintza berdinetan gaude eta hori oraindik neurtu ez daitekeen zerbait da. Aurreko urtetik hona Oriok blokea mantendu du, baina entrenamendu espezifiko hori ez osatzea nabaritutako da.

Orio gorenean dago eta aurtengo helburua horri eustea izango da.

Nik espero dudana da kirol honetaz eta taldeaz aurreko urtean bezala edo gehiago disfrutatzea, iaz asko gozatu genuelako. Azken finean disfrutatzea da espero dudana, arraun egitea eta itsasoa asko gustatzen zaigulako.

Taldean aldaketa asko izan dira? Orokorrean egitura berbera mantentzen da, baina aldaketa txo batzuk ere izan dira; batzuek arrauna utzi dute edo beste talde batzuetara joan dira, arraunlari

berriak etorri dira edo aurreko urteetan Orion ibilitako arraunlariak bueltatu dira... baina finean blokea mantendu egin da.

Kirolari gisa zure muga non dagoen jakiteak ere motibatzen omen zaitu. Nola zaude bide horretan?

Azkenean lana eginez gorakako bidea hartuta dugu, ikusiko dugu noiz arte dugun halako garapen positiboa.

Arraun denboraldia noiz hasten da berez?

Ekainean da hastekoa. Larunbatean TKE (Traineru Kluben

Elkartea) modu telematikoz elkartu zen egutegiaren azterketa egiteko. Egutegiari eutsiko diote eta egoerak agintzen duenera egokituko dira.

Etxean egiten ari zaretena mantentze lana izango da entrenatzea baino. Eusko Label Ligara %100ean iritsiko zarete?

Guk garbi dugu gu prest egon behar dugula Eusko Ligan planteatzen dituzten planteamendu desberdinetarako; horretarako entrenatzen ari gara, planteamendu ezberdinetarako prest egoteko. Gure entrenamenduan mantentzeko lanak egiten ari gara, baina baita alternatiba edo ibilbide desberdinak aurkezten badira prest egoteko ere. Dena den, ikusi beharko da osasun krisialdi hau nola garatzen den eta zein errealitate berria ezartzen digun.

Arraunlarien artean kontaktu zuzena ez izatera ohitu ahal izango zarete? Zeinen zaila...

Bai, zaila, baina nik uste dut honek guztiak gauza asko aldatuko dituela derrigor. Jendeak kontzientzia handiagoa hartu du birusen edo transmisioaren inguruan dauden arriskuez, eta jokabideetan aldaketa handiak egon daitezkeela uste dut.


Orioko arraunlaria izateaz gain, filosofia ikasketak eginak dituzu.

Irakaskuntzako Masterra bukatuta, Euskadin ateratako irakaskuntza oposizioetan izena eman nuen, baina... Nafarroako oposizioak badakit 2021ean irekiko dituztela berriro, baina Euskadikoez oraindik ez dakit ezer.

Urritzolan zer moduz zabilzate?

Momentuz ongi gaude. Ildo honetan, gustatuko litzaidake gizarteari eta herriei aitortza bat egitea, Sakanan ere elkartasun sareak sortu direlako, arrisku egoeran dauden pertsonen erostetarako egin eta segimendua egiteko, ea nola dauden galdetzeko. Gobernuaz aparte, ikusten da gizarteak ahalmena duela elkartzeko eta halako dinamikak sortzeko. Urritzolan jende helduak bere ondoan jende gazteagoa du eta ez dago bakarrik dagoen jenderik, baina beste toki batzuetan bai.

"ASTEURUETAN BIDEOKONFERENTZIAN ARITZEN GARA GUZTIOK BATERA, ETA ONGI DATORKIGU"



Denbora- pasak


guaixe

Margotu animaliak!

HIZKI-ZOPA

N	W	F	X	F	C	J	L	O	K	N	W	G	C	R	W	U	E	O	X
L	O	S	A	Y	J	P	D	X	Q	K	J	M	Y	L	N	B	C	W	P
B	L	Y	A	F	A	T	E	O	R	O	S	N	I	L	O	X	T	A	B
O	A	A	V	N	C	S	J	M	X	G	T	M	K	N	B	W	O	T	I
Z	T	R	R	K	T	E	Z	K	I	N	A	R	B	I	G	D	K	J	U
T	Z	K	U	I	C	A	E	O	X	O	K	A	T	E	S	T	A	I	S
A	A	A	V	S	Z	G	B	H	C	M	Q	N	X	G	P	H	T	Y	I
D	L	I	O	V	X	P	Y	A	V	K	M	Z	A	I	T	P	E	Y	K
N	D	Z	F	A	J	T	E	E	R	U	A	N	U	K	J	J	I	F	G
O	E	T	Q	I	J	K	Y	T	H	B	B	H	L	H	K	C	R	Q	L
R	J	O	O	W	X	T	N	Q	A	E	A	P	C	G	R	T	R	H	J
E	R	A	I	T	Z	A	B	U	L	A	R	R	A	W	S	G	E	Y	Y
M	V	E	D	L	A	X	T	E	Z	T	N	U	A	T	L	J	B	Q	J
O	C	B	Q	I	W	K	T	E	R	S	C	Q	Y	Z	B	P	A	K	C
U	R	R	I	T	Z	A	M	E	N	D	I	X	M	U	U	O	L	I	L
W	B	W	H	A	R	I	Z	B	U	R	R	I	E	T	A	L	O	H	J
H	K	A	H	K	R	Y	R	O	L	A	R	X	X	R	N	B	O	T	Q
A	N	V	E	P	A	K	O	E	B	O	R	A	S	R	V	T	Y	D	N
Z	T	P	G	H	W	Y	K	C	B	P	T	O	A	M	N	I	W	Z	T
P	N	A	E	T	P	S	Q	G	X	O	W	Z	A	O	Z	A	R	K	O





- ARKAIZTO
- EZKINARBI
- SANTABARBARAZULO
- ERAITZABULARRA
- AUNTZETXALDE
- ATXOLINSOROETA
- ARIZBURRIETA
- SIATSETAKO
- URRITZAMENDI
- ZAOZARKO
- GANBELETA
- OLABERRIETAKO
- ALOR
- SAROBE
- OLATZALDE
- ONDATZ
- ARIZPETA



BILATU BI KATU BERDINAK




ZEIN DA
MUNSTROEN
ITZAL EGOKIA?



AURKITU 10 DESBERDINTASUNAK GUAIXEREN BULEGOAN



GURU TZEG RAMA



Horizontalak

- 3. Irurtzungo euskal txokoa
- 7. Altsasuko gazte gunea
- 14. Unanuko inauterietako pertsonai
- 15. Uharte Arakingo industrialdea
- 16. Argazkiko eskultorea
- 17. Argazkiko Arbizuko taldea
- 18. Lizarrara bideko portua
- 19. Argazkiko irristalaria

Bertikalak

- 1. Biztanle gutxien duen Sakanako herria
- 2. Argazkiko politikaria
- 4. Gartzia ... San Pedro basilizan koroatu zuten Nafarroako erregea
- 5. Lakuntzako sansaastinetako jakia
- 6. Bakaikuko eskultura naturala
- 8. Ziordiko gune autogestionatua
- 9. Sakanako irrati euskalduna
- 10. 1140 urteko monasterioa
- 11. Egun berezietan herriari udalak doan banatzen dion ardoa
- 12. Argazkiko disko jaurtitzailea
- 13. Irurtzungo 1.024 metrotako mendia
- 17. Argazkiko politikaria




ESAERA ZAHARREN SALTSA

Apiril biribil,
Jose santubek
Erramu beruek itto
Kukube etorri, gosie etorri;
Marsuben, leñue nuaño
Marsuko ostotsak,

eta Lazaro hotzak hil
kukube fan, goise fan
urdiek urdeteiyen gosiek hil
berrogehi egun negu
berdintze ttu gaube ta egune
apiibillen elurre autzeño

5 DENBORA-PASAK





ELURRA

Bisuts
Elur ase
Fits
Malota, elur pillota
Txintxirrin




HAIZEA

Sorgiñaize
Gaztela, Arabaize
Iperra, San Migel-haize
Iruzki-haize
Hegolege



EKAITZA

Ekaiztiya, odoi
Iñezture
Ostrilleka
Arriyauntsi
Herleño




EGUZKIA

Argisenti, gareisenti
Errainu
Iruzki, yuzki
Iruzkiye kuriketan ibili
Arrasgorri



LOTU ITZAZU HITZAK ETA IRUDIAK

SAKANAKO TXOKOAK, NON DAUDE?



LOTU ESAN-NAHI
BEREKO HITZAK

- 1. Albitxogorri a. Bizilagun
- 2. Guaixe b. Lasaitu
- 3. Atximixkekan d. Ganbara
- 4. Sosietu e. Hiltzaile
- 5. Biboro f. Marrubi
- 6. Epats g. Aterpe
- 7. Ganbazelai h. Biki
- 8. Aldemen i. Zimikoka
- 9. Estalopie j. Oraintxe
- 10. Koxera k. Korrokada
- 11. Matxite l. Itzulipurdika
- 12. Ilzale m. Gona
- 13. Erpa n. Tximeleta
- 14. Pirriñekan o. Goilara

SUDOKU
ERRAZA

		6						9
						3		
	7		1	9	6	8		
7	4		6		3	1	5	
1			2			7		3
		5						
		1						
			4		5		3	7
		7						8

ZAILA

	8		9	2		6		7
		1						
					4	3		5
				1				9
3	9				7			
	4							
	1		8			5	7	
		8			5		4	
				4		2	6	

ORDENATU DENBORA-LERROA

Gaur

Herenegun

Etzidamu

Heldu den urtean

Gaur hamabost

Atzo

Etzi

Joan den urtean

Herenegun aurrekoa

Bihar



Erantzunak apirilaren 20ean webgunean izanen dituzue

www.guaixe.eus

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Biba diskoaren aurkezpen biraren erdian harrapatu zituen Covid-19 koronabirusak sortutako osasun krisiak Xabi Bandini taldeko kideak. Bi kontzertu eskaini behar zituzten egunotan: Bilboko Kafe Antzokian eta Gasteizko Jimmy Jazz aretoan. Euskal Herriko bi areto garrantzitsu. "Gogoak geneuzkan kontzertu horiek emateko. Grises taldearekin eman behar genituen". Lur Larraza musikari etxarriarrak eta Xabi Bandini taldeko gainontzeko kideek azaldu dutenez, "penarekin eta atsekabearekin" hartu zuten bertan behera gelditzearen erabakia.

Kafe Antzokiko kontzertua alarma egoera ezarri aurretik aurreikusita zuten, baina "entzuleen segurtasunagatik" bertan behera gelditzea erabaki zuten. Gasteizkoa egitea ezinezkoa zen. "Hala ere, baditugu bi kontzertuetarako data berriak, eta behala aterako ditugu". Uda pasa ondoren, "aurrera" jarraituko dute. "Oso pozik geunden, gogotsu". Kontzertuz kontzertu "gozatzen" ari zirela esan du etxarriarrak: "ilusioz eta gogoz". Egoera hau "bidean harri bat" izan dela esan du, izan ere, "pixkanaka martxa hartzen" ari ziren. "Orain buelta eman behar diogu egoerari".

Musikariak eta kulturagileak etxean daude. Lanik gabe egon arren, "ahal duguna egiten" saiatzen dira. Ez dira geldirik egoten. "Gauza desberdinak egiteko eta aspaldi egin ezin izan ditugun gauza horiek egiteko" aprobetxatzen ari da Larraza. Teknologia berriak artisten aliatu bihurtu dira. Itxialdiaren lehenengo egunetan Xabi Bandinik kontzertua eskaini zuen Internet bidez, eta hainbat zuzeneko ere egin ditu. Gainera, amei eskainitako bideoak sortu du etxean ere. "Nik Xabi laguntzen dut sare sozialen kudeaketan eta patroen plataforma horretan". Egoera berrian martxa hartzen ari dira. Larraza Deepsoda ekoiztetxekeo managerra da, eta hauek ere lanean jarraitzen dute. "Taldea laguntzen ditugu, nahiz eta askotan inpotentzia puntu bat sentitzen dugun". "Ezin egite" horrek sortzen die inpotentzia. "Behintzat ahal dugun guztian laguntzen dugu eta ideia berriak aurrera eramaten ditugu; ahal dugun guztiarekin aurrera egiten dugu".



Lur Larraza musikari etxarriarra. UTZITAKOAN

Zer da itxialdia kulturarik gabe?

Krisi egoerek sormena sustatzen duela diote. "Berrasmatzeko" aukeraz hitz egin du Lur Larrazak, Xabi Bandiniren taldekidea den musikariak. Bandinik egoerari buelta emateko ekimen berria aurkeztu du

Aukera berriak

Xabi Bandinik itxialdian zuzeneko kontzertua eskaini ondoren, egoerari aurre egiteko "formula berriak" pentsatzen hasi ziren taldekideak. "Xabi Bandinik Kerobla taldearekin Supernova diskoa crowdfunding moduko diru bilketa batekin atera zutela bururatu zitzaigun, eta horri bueltak ematen zer egin genezakeen pentsatzen hasi ginen". Patreon deitzen den plataforma topatu zuten. "Egileak laguntzeko plataforma bat da. Jarraitzaileek materiala ateratzen laguntzen die". Hilabetean bi euro

"KULTURA EZ DA BIZIO BAT; BIZITZAN LAGUNTZEN DIGUN ZERBAIT DA"
LUR LARRAZA

jartzen dituzte jarraitzaileek eta artistek proiektuak aurrera eramateko aukera dute. "Ez bakarrik musikariak, artistak, youtuberak... jende pila bat dago".

Osasun krisi egoera berezi honek musikari jarraitzaileekiko harreman berriak ere sortu ditu, izan ere, plataforma honen bidez zein sare sozialen bidez, musikari zaleekiko harreman zuzena izan dezakete. "Harpidedunek gauzak galdetu ahal dizkigute, galdeketa bat egingo dugu zer ikusi nahi duten jakiteko edo zer interesatzen zaien... Harreman hori lantzen dugu".

Alde positiboa atera daitekeela uste du Larrazak: "Egoera honek berrasmatzeko aukera eta beharra ekarri digu. Sare sozialen bidezko zuzenekoak, bideoak...". Gainera, kulturak munduari ematen diona "balorean jartzen" duela azaldu du etxa-

rriarrak. "Zer izango litzateke etxean daramatzagun egun hauek musikarik gabe, pelikularik gabe... oso gogorra izango litzateke". Egoera honen ondoren kultura "beste modu batera" baloratuko dela uste du musikariak. "Behintzat alde ona izango duela uste dut nik. Garrantzia hori emango zaiola". Hortaz, hemen aurrera kulturarekiko zegoen ikuspuntua aldatuko da.

Ezin geldirik egon

"Egia esan lehendabiziko egunetan pixka bat blokeatuta egon nintzen: zer egin, nola egin, nola

"EGOERA HONEK BERRASMATZEKO AUKERA ETA BEHARRA EKARRI DIGU"
LUR LARRAZA

aurrera eraman... Baina gaur da eguna gelditu gabe gaudela". Larrazak esan duenez, "lanik gabe" daude, baina gelditu gabe. "Kuriosoa da". Egunero artistekin kontaktuan dagoela azaldu du, denbora guztian "egiteko" horri bueltak ematen.

Osasun krisiak gogor jo du arlo guztietan, baita kulturaren ere. Musikariak egoera larrian daude. "Nik musika munduan lan egiten dut eta egun batetik bestera uda erdira bitarte guztia erori zaigula ikusi dugu". "Kilikolo" bizi garela aitortu du Larrazak: "Aterako gara, baina ez da erraza izango".

Momentuz, atzeratutako kontzertuei data jarri dizkiete. Udazkenean izango dira. "Ez dut pentsatu nahi abendua iritsiko denik eta oraindik gaizki egongo garenik". Argia ikusiko dutela pentsatu nahi du etxarriarrak. Hortaz, lanean jarraitzen dute irailerako, urriarako eta azarorako gauzak prestatzen.

Itxialdia

Alde batetik Larraza etxean "gustura" dagoela onartu du, baina faltan botatzen du musikatik bizitzeak ematen dion mugimendua. "Astebururo kanpora joaten naiz, gelditu gabe. Asteburu batean etxetik gertu dagoen kontzertu batean egon, baina hurrengoan Valladolid, Valentzia, Almeria... Martxa hori faltan botatzen dut". Egoera hau bukatzen denean lehendabiziko gauza "jende asko ikustea" izango dela esan du etxarriarrak eta "lan egiteko gogoia" dauka baita ere.

Etorkizuna "galdera oso zaila" da. "Ez dakit noiz bukatuko den eta nola bukatuko den". Kulturagilei aurreko egoerara "itzultzea" kostatuko zaiela esan du Larrazak. "Seguruenik gu izango gara lanean hasten azkenetarikoak, jendea biltzea delako gure lanaren parte: kontzertuak, aglomerazioa...". Ez du espero egun batetik bestera egoera "normala" izatea, are gehiago kontuan hartuta hasieran hartu zituzten neurriak: aretoen edukiera mugatu zuten, gero heren bateko tokia onartu zuten eta azkenik bertan behera utzi zituzten gauzak. "Batuetan kultura bizio bat bezala ikusten dela iruditzen zait, eta ez da bizio bat. Bizitzan laguntzen digun zerbaite da". Egoera hau kulturarik gabe "agonikoa" izango zela esan du.

Alfredo Alvaro Igoa SAKANAN

COVID-19ak eragindako osasun larrialdia ezarri zenean kezka azaldu zenuten etxeko konfinamenduak emakumezko asko indarkeria matxistaren menpe utzi zitzaizkela. Hiru aste. Egoera ez da aldatu. Eta zuen kezka, pentsa dut, ezta ere.

Oihana. Bere garaian esan genuen bezala, konfinamendu honek eragin zuzena izanen du indarkeria matxista sufritzen duten emakumeengan. Bizikidetzara iraukorra ematen delako eta etxetik atera ezin direlako. Bestetik, mugikortasuna urria daukatelako. Egia esan, kezka badago, baina daturik ez daukagu. Dena pasatu arte datu horiek jasotzea ezinezkoa izanen da. Kezka horrekin lanean ari gara emakumezkoen esanez Sakanako baliabideak martxan daudela. Eta, bestetik, gogoraraztea ez daudela bakarrik.

Nola egiten da bakarrik ez daudela adierazteko?

O. Ematen den lehendabiziko aholkua da haien buruarengan konfiantza izatea. Gero, gertukoaren artean, edo sare lan horretan dabilen artean aholkua edo babesa eskatzea. Sakanan dauden baliabideetara jotzeko aukera ere badaukate. Baliabide horiek Jarain.app web gunearen bidez eskuratzeko aukera dute. Edo beraiek gertutik ezagutzen duten baliabideetara jotzeko.

Botiketaren maskara-19 ekimena ere martxan da, ezta?

Idoia. Nik Altsasun botika guztiak hitz egin dut. Farmaziak ezinbesteko jarduerak dira eta irekita daude egunero. Badakigu botiketarik jende asko pasatzen ari dela. Nik esan diet gure aholkuekin kontatzeko. Oso kanpaina berria da. Haiendako ere. Nik uste dut momentu honetan denok gure indarrak batu behar ditugula. Denok diodanean zerbitzu guztiak da. Horregatik, mezuak izan behar dira, batez ere, oso zehatzak. Beti esaten dugu: egoera larrian dagoen emakumezko batek 112 telefonora deitu behar duela. Larria ez bada, pentsatu behar badu, edo informazioa edo aholkua nahi badu, hots egiteko gizarte zerbitzuetara edo berdintasun teknikariei. Edo kanpaina horretan, botika batean eskatu eta haiek jakinen dute zer egin.

Komunitate baten babesa azaltzea emakumezko horiei.

O. Horregatik, garrantzitsua da Sakanako jendartearen konpromiso hori. Egoera horretan da-

"Zaintza inportanteena dela esaten ari gara"

IDOIA GOIKOETXEA ETA OIHANA GALLO BERDINTASUN TEKNIKARIAK

Indarkeria matxistaren menpe dauden emakumezkoekin kezka, sakandarrei haiek laguntzeko deia, osasun-krisialdia, zaintza, langabezia eta etorkizuna hizpide



Satrustegiarrak plazan hizketan. ARTXIBOA

goen emakumezkoren bat eza-gutzen badugu, guk ere badaukagula zeregin hori. Lehen esandakoa: ez daude bakarrik. Pertsona horri ere babesa adierazi eta laguntza eskaini. Berak erabakiko du zer motatako laguntza, baina laguntza eskaini. I. Inportantea da: informazio hau ez da bakarrik indarkeria jasaten duten emakumezkoendako, baizik eta denok jakiteko, emakumezko horiei laguntza emateko. **Mugimendu feministak zaintzaren kontzeptua ekarri du lehen lerrora. Zer da zaintza?**

I. Zaintza da gure burua eta denon egoera hobereanean mantentzeko egin behar dugun lana. Ez da lana soilik; sentimenduak, ahalmek eta gauza asko dira. **O.** Mugimendu feministak, eta berdintasun politikek ere, denbora daramagu esanez zaintza krisian dagoela eta eredu hau berrantolatu behar dela. Osasun krisi honek eragin du zaintza krisi hori lehen lerroan jartzea eta orain arteko eredu hau ez dela sostengatzen. Zaintza eta bizitza erdigunean jarri beharko ditugu. Aldarrikapen hori gaur egun ere ikusten dugu.

"EGOERA LARRIAN DAGOEN EMAKUMEZKO BATEK 112 TELEFONORA DEITU BEHAR DU"

Osasun krisialdia eta zaintza nola uztertzen dira?

I. Nik uste nahiko ongi eramaten ari garela. Behintzat konfinamendu epe honetan, etxean egotean. Nola lotu? Argi izan behar dugu zeintzuk diren ezinbesteko lanak. Eta ezinbesteko lana da pertsonak zaintzea. Alde batetik, gure burua zaindu, bestela ezin ditugu besteak zaindu. Bestalde, mendekotasunean dauden pertsonak zaindu: gure seme-alabak, gure aitona-amonak, gure gurasoak, gure aldamenekoak... Denon artean aurrera jarraitzeko modu hobereanean. Saiakera horretan gaude denok. Gure ustez inportantea da feminismoaren aldarrikapen hori hartu eta, egoera honetatik ateratzen garenean, jarraitu behar dugu pentsatzen: hori da inportanteena. Ez dut esaten industria, ekonomia, aisialdia edo bidaiak ez direla inportanteak. Baizik eta zaintza inportanteena dela.

Azken finean, gizarte sareak ehundu elkar babesteko elkar zaintzeko.

O. Sakanan zaintza-sareak antolatu dira. Azkenean, krisialdi honek erakutsi beharko digu hau dela bidea. Hemendik aurrera norbera zaintzea, hori lehendabiziko pausoa. Baina elkar zaintze horrek eta sare lan horrek lehentasunezkoa izan beharko du.

Erakundetuta, lan bihurtuta dauden zaintza esparru asko feminizatuta daude.

O. Feminizatuta eta orain arte ikusezinak izan diren lanak izan dira gainera. Ez diegu duten balioa eman. Edo ez zaie duten balioa eman. Eta orain agerian gelditu da lan horiek direla momentu honetan, edo krisialdi honetan, bizitza sostengatzen duten lanak. Hor ere beste kontraesan bat daukagu. Orain arte ikusezinak ziren lanak gaur egun zer-nolako garrantzia dute. Eta gaur egun lanean ari direnak dira.

I. Lehen indibidualki zer egin behar dugun hitz egin dugu. Baina ezinbestekoa da erakundeek eta gobernuek beren ardura hartzea eta, hemendik aurrera, horrelako zerbitzuak kontuan hartzea.

Krisiaren erdigunean etorri dira langabeziaren datuak. Horrekin ere kezka baduzue?

I. Nafarroako Gobernuaren azken txostena irakurri dut, apirilaren 2koa. Sarreran esaten du krisi honek eragin handia izanen duela. Gure ikuspuntutik betiko

tranpa dago. Esaten dute langabeziak eragin handia izanen duela gazteengan, langile helduengan, emakumezkoengan, etorkinengan eta babes gabeko langileengan. Eta honetan tranpa dago: gazteen artean emakumezkoak daude, helduen artean emakumezkoak daude, etorkinen artean ere emakumezkoak daude. Azkenean zer gertatuko den oso ongi begiratu beharko dugu. Beste abisu bat egiten dute. Txostenak esaten du: eskolak edo zaintza zerbitzuak ixten badituzte emakumeenganako lan zama handituko da. Berdintasun politikak eta feminismoek aspaldi eskatzen ari dira koardura edo erantzunkidetasuna. Ezin dugu horrelako txostenik onartu, abisu moduan, esaldi bat esatea: zaintza zerbitzuen faltak emakumezkoen lan zama handituko duela. Hori, eta soldata, zenbat emakumezko geldituko dira langabezia, aldi baterako kontratu horiek... Enpleguaren arloan badaude beste gauza batzuk orain arte baino hobe hausnartzeko.

O. Horrekin lotuta, kontraturik gabeko etxeko langile asko eta asko dauzkagula. Horien egoera ere zein izanen den. Hau da, langabeziak gora egiten du. Baina badago hor beste errealitate bat, datuetan ikusiko ez duguna.

Beraz, lan politiketan ere betaurreko moreak eskatzen dituzue.

I. Baina denon saiakera izan behar da. Orain krisian egiten ari garen eskaerak barneratu eta, hemendik aurrera ere, mantendu egin behar ditugu.

Bestela 2008ko krisian bezala emakumezkoak erabat kolpatuta aterako dira, ez?

I. Argi dago. Eta gogoratzen baduzue, aurreko krisian, hasieran, esan zuten: baina gizon gehiago gelditzen ari dira langabezia. Baina krisia pasa eta gero, emakumezkoak zeuden langabezia. Eta orain zifrak berdina dira. Argi-argi, gizon gehiago egiten duten enpresak gelditu direlako. Eta zaintza zerbitzuetan emakumezko gehiago daudelako. Krisi osoa pasa eta gero, momentu horretan, betaurreko more horiekin begiratu behar dugu.

"LANGABEZIAK GORA EGINEN DU. BAINA DATUETAN IKUSIKO EZ DEN ERREALITATEA DAGO"

Jakina da gaitzak sendatzeko botiken testak gizonzkoetan egiten direla normalean eta gero ondorio desberdinak dituztela emakumezkoetan. Krisi honetan genero ikuspegia osasun arloan bada, ezta?

O. Ikerketa interesgarri asko daude osasungintza eta genero ikuspegiak. Gaixotasun berri bat denez orain ikerketak eta egiten ari dira. Osasunbideak ematen dituen datuetan ikusten da kutsatu gehiago gizonzkoak direla. Baina oraindik ez dago ikerketarik. Ondoren egin beharko da.

I. Gure gizartea ez dago prestaturik genero ikuspuntutik edozein ikerketa egiteko, ez programa, ez lana, ez ezer. Hori egiteko gertatu baino lehen aurreratu behar dugu denok. Zein galdera egin, definitu zer publikorengan egiten diren probak... Badago aurrelana egiteko beharra. Eta gure gizartea ez dago prest orain hori egiteko. Egin daiteke, dudarik gabe, baina oraindik, nik uste, asko falta dela lan arlo denetan.

O. Horrekin lotuta eta lan feminizatu horiek kontuan hartuta, aurrekoan irakurri nuenez, gaur egun kutsatzeko arrisku gehien daukatenak emakumezkoak dira. Bai garbitasun alorrean, erizainak eta, gehienak emakumezkoak direlako. Arrisku gehiago zeukatela aipatzen zuten. Horren inguruko ikerketak ere etorriko dira.

Krisialdi honen ondoren zer?

O. Osasungintzarekin lotuta, krisialdi honen ikerketa bat egin beharko da. Irakurketa egiten dugunean genero ikuspegia txertatu beharko dugu. Aipatu bezala, krisialdi honek azaleratu ditu beste praktika batzuk: sare lan hori, konturatu gara pertsonak bakarrik ezin gabela bizi, komunitate batean bizi gara eta elkarrenganako dependentzia hori daukagu. Feminismoak esaten duen esaldi bat ekarri nahi nuen: pertsonala ere politikoa da. Nik uste honek irakaspen bat eman digula. Hori da nire esperantza. Garai oso txarra da. Datuak hor dauzkagu. Positiboen artean horiek azpimarratuko nituzke: elkartasun hori, sare lan hori, ahizpatasun hori. Eta eredu aldatuta baten premia daukagula bistan gelditu da.

I. Ados. Ahizpatasuna da feminismoak sortutako hitz polit bat. Nik uste dut ahizpatasuna gizarte osoan zabaltzearekin geldituko gabela.

Sakanako dendariak gaur irekitzearen kontra

"Ostegun santuan merkataritza libreki irekitzea gizarte osoaren kontra joatea da"

SAKANA

Merkataritza txikiaren eta hurbileko merkataritzaren elkarrekin, tartean Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Zerbitzuen Elkarrekin (SDOZE), agintariei eskatu diete Ostegun Santuan ez dezate irekitzeko aukerarik eman. "Pairatzen dugun osasun-larrialdiko egoeran" nahikoa arrazoi ikusten dute SDOZEko kideek Ostegun Santuan dendak itxita egoteko. "Kontuan izanik bai Nafarroako Gobernuak bai zentralak astean behin erosketak egitera joateko eskatzen dietela biztanleei, etxetik ahalik eta hurbilen, eta jendetza saihestuz, logika hutsa iruditzen zaigu". Gaineratu dutenez, "uste dugu, gainera, aste honetan kontsumitzaileak nahikoa egun baino gehiago dituela, guztira 4 egun, bere erosketak egiteko, eta uste dugu neurri hori osasun-arloko zentzugabekeria dela, gizartearekiko inolako ekintza enpatiko eta solidarioa, oro har, baita hurbileko merkataritzarekiko bidegabekeria ere".

SDOZEtik gogorarazi dute Sakanan eta Nafarroan ehunka saltokik debekatuta dutela merkataritza irekitzea, ostalaritza eta zerbitzu askotan bezala. "Ez dugu ulertzen, hilaren 26ra arteko nahitaezko itxiera agindu ondoren, Ostegun Santua irekitzea eta aisialdia egitea ahalbidetzea, egoera normala balitz bezala eta alarma-egoera pairatzen ari ez bagina bezala. Nafarroako operadore handiei ekonomikoki mesede egitea da interes bakarra".

SDOZErekin bat egin dute txikiak eta hurbileko saltokien ordezkariak: Iruñeko elkarrekin, Arrotxopea, Sanduzelai, Latxan, Iturrama, Mendillorri, Nafarroako Merkataritza Txikiaren Elkarrekin, Tafalla, Doneztebe eta Sakanako merkataritza elkarrekin bat egin dute eskaera horrekin.



Sakanako Garapen Zentroan, besteak beste, agentziak du egoitza. ARTXIBOA

Enpresa eta autonomoendako informazio eta arreta zerbitzua

Harremanetan jartzeko: info@sakanagaratzen.com
e-posta eta 647 864 239 telefono zenbakia

SAKANA

Sakanako Garapen Agentziak koronabirusak eragindako "ekonomia-krisiari aurre egiteko, ibarreko enpresa eta autonomoen bidelagun" izan nahi du. SGAko kideak jakitun dira epidemiaren zabalkundea saihesteko hartutako neurri bereziek "ekonomia-geldialdiarekin batera herritarrengan eta ibarreko gizarte eta ekonomia eragileengan zaurgarritasun egoera handitu duela" eta ziurgabetasun egoera areagotu".

Horregatik, SGA, beste administrazioekin elkarlanean, erakunde publikoetatik eskaintzen diren hainbat laguntzaren informazio eguneratua eta ulergarria eskaintzen du www.sakanagaratzen.com web gunearen bidez. Han autonomoendako, Enpresa Txiki eta Ertainendako (ETE) eta lehen sektoreko jarduerendako diru-laguntzen berri dago, esaterako. Baita laneko arriskuen prebentzioarako gomendio batzuk ere. Agentziako kideek, gainera, Sakanako erakunde publikoen arreta zerbitzu zentralizatu eta telematikoak prestatu dute autonomoendako eta Enpresa Txiki eta Ertainendako. "Zerbitzu horren helburua da problematika zehatzak jaso eta eskumena duten erakundeei informazio hori helaraztea". info@sakanagaratzen.com e-postaren eta 647 864 239 telefono zenbakiaren bidez mezuak erantzuten dituzte eta lan-taldeko teknikariek koordinatuko dira, "ahalik eta irtenbiderik egokiena eskaintzeko".

Galdetegia

Sakanako autonomoek eta Enpresa Txiki eta Ertainek dituzten behar zehatzak "hobe ezagutu, kuantifikatu eta modu eraginkoragoan erantzuteko", bere web orrian opatu daitezkeen galdetegi bat prestatu du Sakanako Garapen Agentzia. "Informazio hori oso lagungarria izanen zaigu eskualdeko agentzari behar horien berri eman eta enpresa nahiz autonomoei laguntzeko politikak publikoak zehazteko orduan". Horregatik, galdetegi erantzuteko deia egin dute agentzietatik.

Sakanako Garapen Agentziaren galdetegian norberaren jardueraren sektorea identifikatzeko eskatzen da lehenik. Ondoren, langile kopuruari dagokiona heldu da. Osasun-krisialdiak autonomoen eta Enpresa Txiki eta Ertainen antolokuntzan dagoeneko ondorioz ekarri duen edo dituen eta, hala bada, ondorio horiek zehazteko eskatzen du galdetegiak. Aktibitateari dagokionez, COVID-19a ekoizpean zein ondorio izaten ari den edo izanen duen jakin nahi dute agentzian. Eta guztiaren ondorioz salmentak aldatu diren. Erakunde publikoek autonomoei eta Enpresa Txiki eta Ertainenei zuzendutako salbuespeneko laguntzen berri ba ote duten galdetegiarekin batera haiei buruzko aholkularitza beharko luketen, eta nolako, galdetzen du agentzietatik. Galdetegi erantzuten dutenek euren ekarpenak egiteko tartea ere izanen dute.

Herriari buruzko galde-erantzunen jokoa

Etxarri Aranako tribialak Zulotik du izena eta asteen bi partida jokatu dira. Horretarako, www.zulotik.eus web orrira jo behar da. Gainera, galde-erantzunak tribiala@zulotik.eus e-postara bidaltzeko eskaera egin dute

ETXARRI ARANATZ

Etxarriar koadrila bati herriari buruzko tribiala egitea bururatu zaio, hiru helbururekin. Aurrena, etxeko itxialdia eraman-garriagoa egitea. Hurrena, etxarriarren artean herri-giroa sortzea, eta, atzena, Etxarri Aranatz gehiago ezagutzea. Pandemia zabalkundeari atea itxeko etxean egotera behartuta gaudeenez, sustatzaileek galde-erantzunen jokoari Zulotik izena ematea erabaki dute.

Etxarriarren laguntza behar dute galde-erantzunak prestatzen. Horregatik, galderak eta erantzunak tribiala@zulotik.eus e-posta helbidera bidaltzea eskatu dute. Astero bi galdetegi edo jokaldi zabaltzeko asmoa dute eta aste akaberan www.zulotik.eus web gunearen bidez erantzun zuzenak emanen dituzte. Gainera, erantzun gehien asmatu duten jokalarien zerrenda ere argitaratuko da. Baita asteko saria jaso duen pertsonaren izena ere.



Etxarriarrak Larrañeta kalean. ARTXIBOA

Izan ere, "tribiala erakargarriagoa izan dadin, astero sari xumeak emanen dira, herriko dendari eta ostalarien parte-hartzeari esker". Etxarriko tribialaren sustatzaileek azaldu dutenez, "garbi dago sariak ezin

duela helburu izan, pizgarri baizik; eta batez ere, une gogor hauetan, gure dendari eta ostalariekin bat egin eta elkartasuna adierazteko bidea. Horregatik, asteroko sariduna zozketa bidez aukeratu da".

Aberri egunean ikurrak jarri eta kantatzeko deia

Igandean, Aberri Egunean, balkoi eta leihoetan ikurrina edo Nafarroako bandera jartzera deitu dute 27 euskal herritarrek Euskal Herria Batera ekimenaren bidez. Horrekin batera, 12:30ean COVID-19ak hildakoak omentzeko eta zaintza lanetan ari direnei eskerrak emateko minutu bateko isilunea egitera deitu dute. Ondoren "Txoria txori" eta "Ikusi mendizaleak" kantatzera deitu dute. Horretan lagunduko dute euskaraz aritzen diren irratiek, 12:30ean, bat egin eta euren sintoniaren bidez kantak emanen baituzte. Ekimen horrekin bat egin du Belexe Irratiak (FM 107,3 edo guaix.eus/irratia). +www.guaixe.eus

Errepublikaren aldarrikapena ere balkoira

Apirilaren 14an, asteartean, errepublikako banderak balkoietan zintzilikatzeko dei egin dute. Baita 21:00etan eltzetxe-jotzea egiteko ere. Nafarroako Ezkerreko Batzorde Errepublikarrak (NEBE) "murrizketen politika neoliberalerantz zuzentzeko, eta bereziki osasunean, izan dituzten ondorio larriak agerian utzi dituen egoera larri batean" aldarrikatuko du errepublika. Gaineratu dutenez, "argitara ateratzen ari dira oraindik Juan Carlosen ustelkeriaren pasarte larrienak, baita Felipe VI.aren isiltasun konplizea ere. Herritarren aldarria monarkiaren etorkizunerako jasanezina zenez bakarrik hartu ditu neurriak"

Bertan behera Berriain argiztatzeko egitasmoa

Maiatzaren 9an egitekoa zen eta mendia gauez argiztatuz burujabetza eta askatasun nahia adierazi nahi zen. Sakanako mendizale talde batek sustatu zuen ekimena, Gure Eskuren laguntza zuen. Baina osasun krisialdiagatik bertan behera gelditu da.

Bestetik, Gure Eskuk jakinarazi du Hamaika Gara egitasmoaren kaleko jardura eta mobilizazio guztiak udazkenara atzeratu dituela. Gure Esku etorkizun politikoaz eta gai guztiez erabakitzearen alde, eta erabakitze eskubidea arautzea helburu, erreferendumaren aldeko sinadura bilketan ari zen eta mobilizazioak aurreikusitakoak ziren. +www.guaixe.eus

Altsasuko etxegabekoen aterpea zabalik

Osasun-krisialdiak irauten duen artean egun osoko zerbitzua eskainiko du, kaleetan etxegabekorik ez egoteko

ALTSASU

Martxoaren 13an ateak itxi ondoren Altsasuko etxegabekoen aterpeak aste honetan zabaldu ditu berriro bere ateak. Aterpea kamineroena zen etxeetako batean dago, eta COVID-19ak sortutako osasun-krisialdiak irauten duen bitartean zabalik egongo da, egun osoz, kaleetan etxegabekorik egon ez dadin. Aterpeak normalean gehienez gau bateko egonaldia eskaintzen zuen. Zortzi pertsonarendako tokia badu ere, laurdako izanen da orain. Eta, jakina, zerbitzua eskaini eta jasotzen dutenen osasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira: distantziak errespetatu, temperatura hartu eta beste.

Zergen ordainketa

Altsasuko Udalaren Ogasun Sailak azterketa bat egin du, koronabirusak eragindako osasun-krisiak udal-tributuen eta prezio publikoen jaulkipenean eta kudeaketan izango duen eragina ikusteko. Ondorioz aurtengo zerga-egutegia berrantolatzea erabaki du. Batetik, borondatezko zergen ordainketa-epeak luzatu ditu. Martxoaren 14a baino

lehen bukatu ez ziren udal tributuen-ordainketa-epeak apirilaren 30era arte egin ahalko dira, eta martxoaren 14tik aurrera egindako jakinarazpenei dagozkien zergak ordaintzeko epeak, ekainaren 1era arte luzatuko ditu. Bestetik, uraren tasaren ordainagiriaren jaulkipena hirutik bira murriztuko da ekitaldi honetan, eta sei hileka bidaliko dira. Horrela, 2020ko lehen sei hilekoaren ur kuota uztailean emango da. Hirugarrenik, zergen ordainketa abenduaren 31ra arte geroztatzeak aukera izango dute euren tributuetatik borondatez martxoaren 14tik irailaren 30era ordaintzen dituztenek, beti ere eskatzaileak zerga-betebeharrak egunean baditu.

Azkenik, Altsasuko Udalak zerbitzu publikoak emateagatik edo espazio publikoa erabiltzeagatik zehaztutako tasa eta prezio publikoek dagokienez, zenbatekoa proportzioan itzuliko du, koronabirusak sortutako egoera honetan zerbitzu publikoa, administrazio-jardura edo espazio publikoa erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea osorik edo zati batean ematen edo garatzen ez denean.

"Eskumenen kentze eta zentralizazioa" salatu ditu EH Bilduk

COVID-19ak eragindako alarma egoeraren aurrean Sakanako EH Bilduk adierazi duenez, "krisi honek udalek dituzten kompetentzia eta finantzazio eskasa agerian utzi du. Herritarrengandik gertuen dauden instituzioak dira, bizilagunen beharrak hobekien ezagutzen dituztenak, baina beharrezko neurriak hartzeko orduan mugatuta daude". Aldi berean, "kezkarritzat" jo du Espainiar Gobernuak "elkarlana sustatu beharrean erkidegoei eta herriei kompetentziak kendu eta Madrilgo aginte bakarraren pean uzteko erabakia". Koalizioak "zaintza kolektiboan eta justizia sozialean oinarritutako Estatua" eraikitze deia egin du.

Gazte Asanbladak "iratzartzeko deia" egin du

Burgesiaren ofentsiba gelditzeko bitartekoak sortu eta horren ondorioak neutralizatzen begira elkartasuna antolatzen hastea ezinbestekotzat jo du. Helburu horrekin Irurtzun-Arakilgo Gazte Asanbladak (IAGA) *Iatzar hadi! Burgesiaren ofentsiba gelditu! Egia. Osasuna. Askatasun politikoa. Langile antolakuntza* leloan duen dinamika abiatu du. Horrela, IAGAKoek bat egin dute Gazte Koordinadora Sozialistaren kanpainarekin. IAGAtik gazi-gatu dutenez, elkartasun beharra dutenek eta lagundu nahi dutenek iatzarhadi@gmail.com e-posta helbidearen bidez jarri daitezke harremanetan. atzarhadi.eus weba dute ere. +guaixe.eus



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Coronavirus Challenge

Oskia hogeita hiru urteko neskatila da. Duela lau urte Bilbora joan zen ikastera, ez ikasle ona zelako, zer edo zer ikasi "behar" zelako, baizik. Azkenean, Marketing graduan izena ematea erabaki zuen. Alaia eta bizi-pozez betea, ilusioz joan zen bizi berria hastera. Bilbo, handia eta euritsua, askatasun pertsonala emanen zion hiria. Bazekien, parrandarako aukera ugari eta leku askotako jendea. Ikasketak motelago, bigarren urtea errepikatuta. Mutil-lagunarekin bizitzen jarrita, fakturak gurasoen kontura. Gaupasak eta alkohola. Eztabaida filosofikoak eta berrikuntzarako eta aldaketarako grina. Txokolata, farlopa eta speeda. Kontsumo konpulsiboa, musika burrunbatsua, dantza frenetikoak eta mugarik gabeko gauak. Horrela, ostiral bateko goizeko 7:00etan gurasoek jaso zuten telefono deia. Oskia, Bilboko Gurutzetako ospitalean zegoen, koma induzituan, alkohola eta anfetaminen gaindosi baten ondorioz. Onik atera zen eta, lau eguneko ospitaleratzearen ondoren, psikiatrarengana joanda, hark egin zuen diagnostikoa. Depresioa eta antsietate-nahasmendua. Tristura eta jarduerak egiteko gogorik eza.

KOMUNA PUBLIKOETAKO KAKA-ZULOAK MINGAINEZ GARBITZEA BEZAIN INTELIGENTEA

Pertsonalitetea gutxieteko sentimendua eta bere buruaz beste egiteko pentsamendua. Datorren astean adikzioa gaunditzeko errehabilitazio zentro batera joanen da jokabidearen terapia kognitiboa egitera. Familia-terapia ere egin beharko omen

dute. Amak negar egiten du logelan; aitak egongelan, isilean.

Drogaren kontsumoak "onarpen" sozial zabala duen honetan, Oskiak ez du batere hautu egokirik egin. Birusa hiltzailearen garai honetan, hainbat youtuber ergelek oihartzuna eta arrakasta lortzearen proposatzen duten Coronavirus Challenge ekintzaren parekoa izan da berea. Alegia, komuna publikoetako kaka-zuloak mingainez garbitzea bezain inteligentea.

(Istoria hau, berriki hurbiletik bizi izan dudana kasu baten fikzioa da. Aurretik tankera bereko asko ditut ezagunak. Zoritzarrez, arruntgia da.)

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Ez da berdina...

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Beste bat izatea gustatuko balitzai-guke ere, jasaten ari garen eta oso gogorra suertatzen ari zaigun ez ohiko egoera honi buruzko hausnarketa egitea ezinbestekoa dela uste dugu.

Gaixotasun hau gaixotasun "demokratikoa" dela entzun izan da, edozein gaixotu ahal delako. Osasun arlotik horrela izan daiteke, baina egoera sozialari begira desberdintasun ikarragarriak daude eta egoera honek agerian utzi ditu ezberdintasun hauek.

Etxebizitza da horietako bat. Egun arazo latza baldin bada gure gizartean, orain gauzak zaildu egin dira.

Konfinamenduan ez da berdin

etxe zabal batean bizitzea zure familiarekin, zein pisu txiki batean bi familia, zein familia bat gela batean, zein aterpe batean, zein kalean...

Ez da berdin konfinamendua eta horri dagozkion beldurrak, zalantzak eta emozioak bakarrik bizitzea, zure familia mila kilometrora dagoenean. Are gutxiago nerabea bazara eta zure herrialdeko egoera ekonomiko eta politikoak behartuta Europako bidea hartu baduzu eta gaixotasunak bidean harrapatu bazaitu.

Desberdin bizi duzu, zure ingurutik urrutiti egoteaz gain, ama bazara eta bakarrik bizi bazara seme-alabekin, zu gaixotzen zarenean zure umeak non geldituko lirakeen kezkek eta izuak gaunditzen bazaitu.

Desberdin erabat, ez dakizunean lanera bueltatu ahalko zaren edo ez, eta zure lana

diru-sarrera bakarria denean. Are gehiago beltzean lan egitera behartuta zaudenean eta inongo dirulaguntza eskatzeko eskubiderik ez duzunean.

Zure familiak interneteko konexioa ordaintzeko aukera baldin badu, etxeko lanak egiteko ordenagailua baldin baduzu, zure ikaskideek daukaten aukera berdina izango duzu klaseak jarraitzeko. Eta ikasturtea besteek bezala bukatu ahalko duzu, bestela zailtasun bat gehiago.

Konfinamendua ez da berdina tratu txarrak ematen dizkizunarekin bizi bazara, zure seme alabak egoera hori 24 orduetan jasaten ari badira, ihes egiteko aukerarik gabe. Eta zerrenda luzea da...

Beraz, denak gaixotasunaren menpe bagaude ere, alarma egoera honek dakarren aparteko zama ez da berdina kasu guztietan.

GUTUNA

Arrisku larrian dago presoen osasunerako eskubidea

JOSEBA AZKARRAGA ETA IÑAKI LASAGABASTER ETA RAMÓN ZALLO
SARE HERRITARRA

Artikulu hau sinatzen dugunak Diputatuen Kongresuko taldeekin hitz egitera joan ginen martxoaren 10 eta 11n, SAREren izenean. Bilera adeitsuak izan ziren, eta esateko geneukana entzun eta aditu zuten. Gure mezuaren bidez, euskal presoen larrialdi-egoerari buruzko ohararazpen bat egin nahi izan genien, gaixotasuna, urruntzea eta gradu-aldaketa direla-eta. Egoeraren larritasunak kezka sortu zien gure solaskideei.

Egun horietan, Madrilen zabaltzen ari zen dagoeneko pandemia; biral bihurtzen hasi zen "arrisku-taldeak" kontzeptua, eta talde horien artean bereziki zaugarritzat jotzen ziren adineko pertsonak. Bada, espetsxean dauden pertsonen "txartel" guztiak dituzte: adin handia, gaixotasun oso larriak, senideengandik urrun, informazioaren opakutasuna..., eta, orain, konfinamendu bikoiztua bihurtu den berrogeialdi hau.

Osasunaren Nazioarteko Egunaren astea den honetan (apirilak 7) gogora ekarri nahi dugu egoera hori. Osasunerako eskubidea bizitzeko eskubidea da, preso daudenena ere. Espetsxeak erabat oztopatzen du osasun-tratamendu egokia

izatea, eta laburtu egiten du gaitz larriak dituzten pertsonen bizi-itxaropena. Horrez gainera, urratu egiten da, baldintza horietan egonda, zigorra etxean betetzeko duten eskubidea.

Legea betetzeko eskatzen dugu, besterik ez. Espetsxean hiltzea ekiditeko.

Zuzenbidearen kontrakoa da espetsxean mantentzea; eta Zuzenbidearen kontrakoa da, erabat bidegabea delako, Estatuaren krudelkeria.

Presoen osasunerako eskubide unibertsal eta utziezina aldarrikatzea erantzukizun kolektiboa da; pandemian lein motiv osasuntsua izan den batak bestea zaintzearen zati bat da, ezinbestekoa gizarte demokratiko batean.

Bizirik eta etxean nahi ditugu.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Ebeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketatzaia@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

ESKELA



Fernando Ignacio Arza Sueskun

'MORENO'



Erraza izan zen zu maitatzea Ezinezkoa ordea zu ahaztea. Beti gurekin izango zara. Zurekin ditugun oroimenak gure bizitzako poza dira. Negarrik ez, agurrik ez, musu erraldoi bat.

Sedeko lagunak

JAIOTZAK

- **Kepa Azpiroz Arakama**, martxoaren 26an Altsasun

HERIOTZAK

- **Fernando Ignacio Arza Sueskun**, apirilaren 3an Altsasun
- **Manuel Jose Enrique Diaz Moreno**, apirilaren 4an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IRAGARKI SAILKATUAK

LAN ESKAERA

Altsasun, asteburutan, jende heldua zaintzeko emakume batek bere burua eskaintzen du. Interesatuak deitu 651 472 721 tfnora.

LEHIAKETAK

"Erdialde" euskarazko idazlan laburren 13. lehiaketa: Lanak aurkezteko epea 2020ko apirilaren 28an amaitzen da Miranda de Argako Tudelana kaleko 3. zbkiko egoitzan edo euskararen-lagunak@gmail helbidean. Oinarriak <http://euskararenlagunak.wordpress.com> helbidean

Baiona Iruñea Maiatzaldiak: Maiatz aldizkariak aipatu jardunaldietara testuak bidaltzeko epea zabaldu du, apirilaren 19ra artekoa da. Aurtengo Maiatzaldien lelo nagusia BIZIMNAREN KOLOREAK (Euskal Literaturan) da. Prosa: 2700 karaktere espazioekin gehienez. Poesiaz: 42 lerro gehienez. Maiatzek jasotako testuen zati aukeratuak argazki muntaketa bat

eginen du Maiatzaldiaren egunetan proiektatzeko, bai Baionan, bai Iruñean ere. Testu osoak udazkeneko Maiatz aldizkarian argitaratu litezke.

12.elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa martxan da: 4 urtetik 16 urtera bitarteko haur eta gazteek parte hartu dezakete. Sari ederrez gain, ikastetxei zuzendutako opari bereziak izango dira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 17a arte izango da. Informazio gehiago www.elkar.eus-en, lehiaketa@elkar.eus helbidera idatzita edo 943 310 301 tfnora deituta.

OHARRAK

Elkartasun sareak: koronabirusak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko elkartasun sareak eratu dira herrietan. Haiekin harremanetan jartzeko moduak dituz hurrengoak: Irurtzunen, udaltxeko bulego ordutegian 948 500 051 telefonoa, eta hortik kanpo 618 636 199. Etxarri Aranatzeko hots egin 673 319 557 edo 671 603 012 telefonoetara. Bakaikun 622

268 161 da markatu beharreko telefonoa eta botiketarako 948 563 450 edo Whatsapp bidez 657 702 178. Altsasun 640 044 424 telefonora hots egin edo altsasukogazteasanblada@gmail.com e-postara idatzi daiteke. Lakuntzan 650 866 423 tfnoran edo lakuntzaelkar-tasunsarea@gmail.com e-postan. Arakilen 948 500 101 – 622 297 961 tfnoran edo info@arakil.net e-postan. Azkenik, Arbizun 675 894 913 tfnora deitu edo idatzi alkatea@arbizu.eus posta elektronikora.

Arakildar guztientzako yoga klaseak: Arakilgo Udalak WhatsApp bidez 12 herrietako profiletan yoga bideoak zabaltzea erabaki du. Astelehenetan eta ostegunetan izasunen bideoa 18:30ean eta Argimalutakena asteartean eta ostiraletan 10:30ean.

Odol-emateak Altsasun: Apirilaren 14, 15 eta 16an 17:00 tatik 20:30 tara, 17an 9:30tatik 13:00tara.

www.iragarkilaburrak.eus



DUELA 25 URTE... 1995-04-05



Arbizu penaltitan txapeladun

Sakanako udaberriko futbol kopa txapelketako, finala 1995eko apirilaren 8an jokatu zuten Zalduak eta Arbizuk Uharte Arakilen. Arakildarrak markagailuan 2-0 aurreratu ziren, baina akaberran arbizuarrek berdindu eta penaltietan txapelketa irabazi zuten. Arbizuarrek lehiaketa hasieran Etxarri Aranazko futbol zelaietan entrenatzen zuten, baina han nahikoa taldekeritu behar zutelara eta entrenatzeari utzi zioten. Hala, zuzenean partidak jokatzera joaten zen Arbizuko taldea.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📌 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Aurpegiaren formaren arabera, nola aukeratu daitezke eguzkitako betaurrekoak?

Orain egoera gogorra bizitzen ari garen arren, etorkizunera begiratu behar dugu, askatasunera, eta egoera larri hau azkar pasako dela pentsatu. Etorkizun hurbilean udara daukagu eta horretarako prestatu beharko dugu.

Eguzkitako betaurrekoek, osasuna ez ezik, moda mundua konkistatu dute, eta gure itxura asko hobetu dezakete. Horregatik honen aukeraketa egoki bat egin behar dugu, horretarako hainbat punturi arreta jarritz.

AURPEGI FORMA. 1. Bihotz forma: zure aurpegia goiko aldean kokotsean baino zabalagoa bada, armazoi handiko betaurrekoak, baina patilla oso finekoak. "CAT EYE" motakoak bikainak dira zuretzako. 2. Karratua: Betaurreko borobilak zalantzarik gabe, hauek aurpegiaren angeluak

leunduko dituzte eta.

3. Borobilak: Marra zuzeneko armazoiak edo angeludunak, horrela aurpegia argaldu eta luzatuko dugulako. Gainera, masailen nabarmentzea ekidingo dugu.

4. Errektangularra: Armazoi edo "montura" handikoak izan beharko dute eta, karratu antzekoak badira, askoz hobe. 5. Obalatuak: Zorte handikoak zarete, praktikoki edozein mota ondo geratuko zaizue eta. **KONTUZ!!!!** Aurpegi handia baduzu, betaurreko handiak aukeratu.


ILE KOLOREA. Aukerarik onena ilearen kolore antzekoa aukeratzea da; beste ideia bat kontrastea izan daiteke, ilehoria bazara kolore beltzeko armazoiak. Beltzarana bazara kolore fuertekoak aukera ditzakezu, hala nola: morea, berdea edo urdina. Gaztaina kolorekoa edo ilegorria bazara

gorria aukeraketa aparta izango da.


KONTUAN IZATEKO BESTE PUNTU BATZUK: Beltzak guztiarekin konbinatzen du eta ez da sekula modaz pasatzen, baina kontuz, fakzioak nahi baino gehiago markatu ditzakeelako. Marroia, klasikoa badirudi ere, nire ustez kolore perfektua da, gehiengoari ongi datorrena. Azal kolore iluna baduzue kafesne kolorea bikain, baina zuriagoa bazara txokolate koloreei erreparatuko nieke. Gorriak, ausartak dira eta hauekin ez zara oharkabekoa pasako, baina apaingarri paregabea izan daiteke. Txuriak edo gardenak? Bai, mesedez. Eramaten dituenaren arabera duenaren arabera, oso dotorea izan daiteke. Aurpegi zurietan eta ile argietan hobe geratzen da, argitasuna emanez.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Osteguna, 9




Ostirala, 10



Larunbata, 11



Igandea, 12



OBJEKTIBOTIK

Higienearen zaborra

Osasun erakundeek ozen eta garbi esan digute oso garrantzitsua dela gure burua eta ondokoak babestea, horretarako beharrezkoak diren tresnekin. Pixkanaka gure bizitzetan sartu ditugu, bai maskarak, bai eskularruak.

Baina babesgarri hauek erabili ondoren, egoki kentzeaz gain (Interneten aurki ditzakezu bideo pila bat), zaborrontzira botako ditugu. Ondoren, poltsa ongi itxi eta errefuxaren edukiontzira botako dugu. Eta ez argazkian ikusten dugun bezala, lurrera.



107.3 FM

BELEIXE IRRATIA

EGUNERO ETXETIK ENTZUN

EGUN ON SAKANA

irratia@beleixe.eus
661 52 32 45
948 567 074



"Herriko tradizio bat bezala sentitu dut nik"

Beste hainbat ekimen bezala, koronabirusagatik Aste Santua ere bertan behera gelditu da. Altsasuko Aste Santuan pasoak ateratzeko tradizioa badago, eta urtetan Candido Arnanz antolakuntzaz arduratu da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Aste Santua bertan behera, nola sentitzen zara?

Ni erretiroa hartzekoa nintzen. Dagoeneko ezin dut. Baina sentitzen dut. Urte askoko tradizio bat da. Zer egin behar dugu? Ezinbesteko egora handi bat da.

2 Zein da Altsasuko tradizioa?

Prozesioa bizitza osoa ezagutu izan dut, eta dagoeneko 88 urte ditut. Lehen jendea oinutsik penitentziak egiten zituen prozesioan. Ez ziren asko, baina ateratzen ziren mozarrotuta, deitzen diogun bezala. Emakumeak eta gizonak ziren eta ezinezkoa zen ezagutzea. Oso ongi antolatuta zegoen dena.

3 Pasoak antolatzeaz arduratu zara?

Lehen udalak antolatzen zuten. Udaleko langileek prestatzen zituzten pasoak. Martin Hualdek Rafaeli proposatu zion ardura Juvetud Javeriana gazte elkarteari uztea. Denetarik egiten genuen elkarten horretan. Mezara joan edoezjoan: Musean jolastengenuen, hitzaldiak ematen zituzten... Ez dakit nork Aste Santurako paso bat erostea proposatu zuen eta



Candido Arnanz Aste Santuko pasoen antolatzailea. UTZITAKOIA

Oloten erosi genuen. 40.000 pezeta kostatu zitzaigun; asko. Handia zen eta prestaketaz arduratzen ginen. Prozesioaren nagusiak bihurtuginen. Udala jendea kentzen joan zen eta ardura guri utzi zigun. Dozena erdia egongo ginen.

4 Sei pertsona inguru zeundeten. Pasoak eramateko jende gehiago behar zenuten?

Hasieran jendea aurkitzea errazagoa zen. Gure gurasoek eramaten zuten. Pasoak oinordetzakoak ziren, tradiziotik zetozen.

Gizon horiek zahartu ahala semeei eta bilobei pasatzen zieten tradizioa. Baina hori desagertuz joan da, eta jendea aurkitzeko gaizki ibiltzen gara. Orri batzuk prestatu genituen pasoak eramane behar zituztenei etxetara bidaltzeko eta ezin bazuten atera behintzat ordezeko bat bidaltzeko edo jantzia eramateko eskatzen genien. Lehen eramateko elkar joka ibiltzen ziren,, ilusio handia zuen jendeak. Batzuk tradizioa mantendu dute. Baina azken orduan beti ibiltzen ginen jakin gabe atera ahalko ginen

5 Urtero atera zarete?

Bai, baina egon dira aldiak larri ibili garenak. Eta nondik kentzen genuen jendea nahiko ez bazegoen? Gazteen pasotik. Handia zen eta 12 pertsonak eramane behar genuen. Beraz, jendea behar bazen horretatik kentzen genuen besteetara eramateko.

6 Zenbat paso dira?

Sei. Handiena Gazteena da, Zigorrada. Oloten erosi genuena. Lanz anaiei muntatzen laguntzen egon ohi dira, eta apurtu direnean konpondu dituzte.

7 Zein ibilbide egiten du prozesioak?

Lehen luzeagoa egiten zen. Villareal zirkuitua deitzen zena egiten genuen: eliza, San Juan kaletik Villarealera eta bertatik alde zaharretik joan ohi ginen. Orain, elizatik udaletxeko aldapatik gora Caixatik pasatzen gara eta bertatik San Juan kaletik elizara. Batzuek esaten dute pisatzen duela... ez du pisatzen! Oso motza da.

8 Zu urtero atera zara?

Urte batzuk euriagatik bertan behera gelditu da. Baina beste urte batzuk elizara 9:00etan elur bustiarekin joan gara dena prestatzera, eta prozesioaren orduan argitzen bazuen, ateratzen ginen. Orain ezin dut ongi ibili, eta azken urteetan norbait bilatzen nuen nire pasoa eramateko nik ezin nuelako.

9 Zergatik da Altsasuko Aste Santua berezia?

Niretako berezia da txikitatik ezagutu dudalako eta herriko tradizioak gustatzen zaizkidalako. Horregatik sartu nintzen nire. Festa egun bat zen. Pasoak eramaten zituztenek eta familiek lapiko batzuk eramaten zituzten bakailaoarekin eta merendua egiten zen udaletxean. Udalak ardoa ematen zuten eta tazetan banatzen zuten. Oso pozik egoten ziren. Gero Zirkulu Katolikoa elkartera joaten ziren (gaur egun Zubeztia) eta bertan eguna bukatzen zuten. Oso tradizionala zen dena lehen.

10 Ohiturarekin jarraituko duzue?

Nik ezin dut lagundu adinagatik, baina nik uste jarraituko dutela. Badira mutiko horiek laguntzen dutenak, nahiz eta ez duten eramane nahi. Baina jarraituko du. Egia esan, ni ez naiz inor eta ni gabe atera daitezke.

11 Aurten etxetik egiteko zerbait berezia pentsatu duzue?

Ez. Gu ez gara berez oso erlijiodunak, eta elizak ere ez du partetik honetan. Herriko gauza bat dela esango nuke. Eliza sartu da bere gain dagoena egiteko. Ez zaio inoiz ezer eskatu.

Oporretara
goaz!

Apirilaren 20an bueltatuko gara

guaixe

